



Upelak zabaltzeko sasoia

Bizkaiko sagardogileek Zornotzako Uxarte sagardotegian zabaldu dute aurtengo txotx denboraldia. 150.000 litro inguru ekoitzi dituzte guztira; denak, bertako sagarragaz. Aurtengo sagardoak aho-zapore samurra eta ohi baino alkohol maila baxuagoa du. 4

“Nire ustez, xakearen munduan emakumeari ez dizkiote gauzak erraz ipintzen”



Maitane Varas
Larrasoloeta kluba • 28

Igor Elortzak eta Unai Iturriagak elkarlanean idatzitako 'Zaldi Urdina' Durangaldera heldu da

Kultura | Barikuan Elorrion, zapatuan Durangon, eta otsailaren 1ean Berrizen ikusi daiteke 'Zaldi Urdina' antzezlan. • 26-27



Ingurumen gehigarria



IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

--AURREMATRIKULAZIOA--
Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.

MAIZTEGI 946 810 937  OROBIOGOITIA 944 288 000



2-12 urte
MAIZTEGI
HH eta LH



12-18 urte
OROBIOGOITIA DBH eta
Batxilergoa

Durungaldeko 160 batzordek eta langile ordezkari bano gehiagok bat egin dute urtarrilaren 30erako greba deialdiagaz

Durungaldeko langileek, sindikatuek, pentsiodunek, gazte mugimenduak, talde feministek eta askotariko eragileek ahots bateratua osatu dute. Indarrean dagoen egitura sozioekonomikoa auzitan ipini eta horren aurrean ertz askoko aldarrikapenak egingo dituzte



ildo bereko jarrera agertu dute. Pentsio sistema publikoa defendatzea, lan harremanetarako eta babes sozialerako sistema propioa lortzea, eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatuko dute haien artean eta etorkizunean pentsiodun izango diren gazteentzat.

Gazteak "lehenengo lerroa"
Gazteek ere izango dute isla mobilizazioetan. Durangoko gazte talde batek salatu duenez, gazte-

"Bizi proiektu duina" eraikitzeko oztopoak salatu ditu Durangoko gazte talde batek

riak "oztopoak" ditu "bizi proiektu duina" eraikitzeko, besteak beste praktika kontratuengatik, klima aldaketagatik eta emantzipatzeko zailtasunengatik. Horren aurrean, greba orokorreko "lehenengo lerroa" hartzea deitu dute.

Emakumeak aurrera
Mugimendu feminista ez da atzean geldituko. "Sexuaren arabera lan banaketari, soldata arrakalari, indarkeria matxistari eta heteroarruari" egingo diete aurre.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak erein zuen hazia. Urtarrilaren 30erako markatu zuen data, eta haren atzetik gainerako herri mugimenduak zein eragile sozialak etorri dira. Astebe baino ez da falta greba orokorrerako, eta Durungaldeko eragileak ere prest dau-

de aldarrikapenerako. Ahots bateratua osatu dute denek elkarrengaz, eta ertz askoko eskarien mosaiko bihurtuko dituzte mobilizazioak. ELA, LAB, STEILAS, ESK, Hiru, Etxalde eta EHNE sindikatuen arabera, 160tik gora dira grebagaz bat egin duten langile batzordeak.

Besteak beste, Gestamp Bizkaia (Abadiño), Egaña (Berriz), edo CIE Udalbide (Izurtza) enpresetan igarriko da grebaren jarraipena.

Langileek bezalatsu, Durungaldeko gazte mugimenduek ere bere egin dituzte "prekaritatea" amaitzeko eta "lan baldintza duinak"

bermatzeko aldarriak. Hain zuzen ere, lanaldia 35 ordura jaitea eta 1.200 euroko gutxieneko soldata dira grebara deitu dutenen eskaritariko batzuk.

Pentsio sistema publikoa
Durungaldeko pentsiodunek ere,

Durungaldeko hainbat herritan egin dituzte grebara batzeko deialdiak. Irudian, Elorriko deialdia.

Patronalaren eskaintza hobetu daitekeelakoan, ELAk lanuzteei eutsi die kiroldegietan

ELAk dio patronalak egindako proposamenak ez dituela funtsezko eskari batzuk jasotzen, eta greba deialdiari eutsi dio. LAB, CCOO eta UGT sindikatuak langileak, ostera, proposamena aztertzen dabilta eta grebak bertan behera utzi dituzte behin-behinean

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

ELA sindikatuko langileei ez zaie nahikoa iruditu patronalaren proposamena, eta, oraingoz, akordiorik ez sinatzea erabaki dute. Sindikatuaren iritziz, lan hitzarmena berritzeko proposamenak ez ditu "sektorearentzat funtsezkoak diren aldarrikapen batzuk jasotzen", eta oraindino hobekuntzak egiteko tarte dagoela baieztatu du. Ondorioz, greba deialdiagaz aurrera jarraituko dute. Horren aurrean, kaltetuak izan daitezkeen erabiltzaileei "elkartasunez" jokatzeko deia egin diete.

Bien bitartean, negoziazio mahaian dauden LAB, CCOO eta UGT sindikatuek lanuzteak behin-behinean eteteko erabakia hartu

dute. Bizkaiko patronalak kiroldegietako lan hitzarmena berritzeko proposamen bat egin du. Sindikatuak proposamen hori aztertzen ari dira. Edizio hau ixterako, akordioa-

Kaltetuak izan daitezkeen erabiltzaileei "elkartasunez" jokatzeko eskatu die ELAk

ren gaineko erabakia hartu barik zuten. Edozelan ere, proposamena aztertu bitartean, bertan behera utzi dituzte lanuzteak. Kiroldegirik kiroldegi dabilta langileekin bozketan egiten.

Durungaldeko kiroldegietan igarri da eragina. Berrizen eta Zor-

notzan, adibidez, zerbitzu batzuk indarrean egon diren arren, beste batzuk bertan behera geratu dira. Elorrion gertatu izan da gimnasioa zabalik egotea, baina igerilekua zarratuta egotea. Abadiñokoak atek zabaldu ditu, baina barruan ez du zerbitzurik eskaini. Urtarrilaren 26ra arte eta otsailaren 4tik 6ra deitu dute grebara.

ELAk du giltza

ELAren jarrera giltzarria da negoziazioetan. Kontuan hartu behar da balizko akordio batek izaera orokorra hartuko duela, baldin eta langileen erdiek babesten badute. ELAk kiroldegietako langileen %51 baino gehiago ordezkatzeko duenez, berak du negoziaketetako giltza.



Lanuzteek Zornotzako Larrea kiroldegian izan dute eragina, besteak beste.

Durangaldeko familientzako elikadurari buruzko lau saio praktiko antolatu dituzte otsailerako eta martxorako

Elikadura ereduari buruzko kezka dutenen komunitatea indartzea da helburuetariko bat; izen-ematea otsailaren 7ra arte egin daiteke, dohainik

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Berton Bertokoa mugimenduak eta Elikadura Burujabetza erakundeak, elkarlanean, elikadurari buruzko lau saio praktiko antolatu dituzte otsailerako eta martxorako. Saioak Durangon, Zornotzan, Zaldibarren eta Atxondon izango dira.

Ekintza horiekin, elikadurari "merezi duen benetako garrantzia" eman gura izan diote, horren inguruko kezka duten pertsonak foro berean elkartuz. "Komunitatea eta hartu-eman sarea indartzea da ekimenaren helburuetariko bat", azaldu zuen Berton Bertokoa mugimenduko Isabel Gonzalezek Akebaso jatetxean eskainitako prentsaurrekoan. "Saioetan gure eguneroko elikaduraren gaia landuko da, ikuspegi kritiko eta praktikoa batetik", gaineratu zuen.

Izen-ematea, doakoa

Saio praktikoetarako izen-ematea doakoa da eta otsailaren 7ra arte egin daiteke internet bidez. Durangaldeko familia zein norbanako guztiei zabalik dago eta ume-

zaintza zerbitzua eskainiko dute. Informazio gehiagorako, eskole-tako Ikasleen Guraso Elkarrekin hartu-emanetan ipini daiteke.

Lau saioak

Lau saioak 17:30ean hasiko dira. Lehenengoa otsailaren 10ean izango da, Durangoko Zabalarra eskolan. Kontsumitzen diren produktuen jatorriagaz eta banaketa-kanalak ezagutzearen garrantziagaz lotutako elikadura aztertuko dute, besteak beste.

Otsailaren 17ko bigarren saioa Zornotzako Zelaieta Zentroan garatuko da. Ikuspuntu nutrizionalera eta osasungarrira bideratuko da, nutrizio aditu baten gomendioekin.

Otsailaren 24an, Zaldibarko eskolan, eskola-jantokietako elikaduraren gaia landuko dute, gaur egungo errealitatean zentratuz.

Azkenik, martxoaren 5ean, Iñigo Fuertes sukaldariak sukaldaritza tailerra eskainiko du Atxondoko Akebaso jatetxean. Tailerrean prestatutako menuagaz afaria egingo dute gero, 35 euroan.



Berton Bertokoako eta Elikadura Burujabetza erakundeko kideak, joan zen astean, Akebaso jatetxean eskainitako prentsaurrekoan.

Amankomunazgoko aurrekontuen %57 herritarren zerbitzuetara bideratuko dira

EAJk eta Aik 6.694.654 euroko aurrekontua onartu dute. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak aurka bozkatu dute

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

"Herritarrenganako zerbitzuetan sakontzen duten aurrekontuak dira, ongizatea helburu dutenak, kudeaketa garden bat helburu dutenak eta aukera berriak zabalitzen dituztenak", azaldu du Josune Escota zinegotzi durangarrak (EAJ). Amankomunazgoko ordezkariak joan den astean onartu zituzten 2020ko jardunerako aurrekontuak. Bertan aurrekusten diren neurrien artean daude adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua martxan ipintzea, zainzaileentzako Zainduz programa bultzatzea, prestakuntza eta enplegu foroa sortzea, garapen iraunkorrari lotutako plan estrategiko bat sortzea eta komunikazio plan bat diseinatzea. Amankomunazgoko iturriek adierazi dutenez, diru kopuru

osoaren %57,67 herritarrentzako zerbitzuetara bideratuko da.

Oposizioa, kritiko

EH Bilduren iritziz, hiru dira desadostasunerako puntuak: presidentearen soldataren igoera, plan estrategikoa garatzeko modua eta komunikazio plana. Aitor Lopez bozeramailearen esanetan, komunikazio plana "gobernuaren eta presidentearen irudia sustatzera" bideratuko da, "zerbitzuak sustatu beharrean". Herriaren Eskubideak ere ez ditu aurrekontuak babestu. Larrialdietarako Laguntza Sozialak "gutxiti" egingo direla esan dute, "gutxi batzuen mesedetan".

Mireia Elkoroiribe presidentearen esanetan, aurrekontuak onartzea "pozgarria" da, "ongizatean, jasangarritasunean eta gardentasunean" aurrera egingo delako.



2020AN EUSKARAZ PRAKTIKATU ETA LAGUN BERRIAK EGIN



IZAN ZAITEZ Berbalagun

Eta hainbat aukera izango dituzu euskaraz praktikatzeko: taldean kafea bat hartu, zure gustuko tailerrak egin, kirola eta naturaz gozatu, eta umerik baduzu, beste familiekin euskaraz jolastu.

Oraindik aukera duzu martxan dauden taldeetan parte-hartzeko edo talde berria osatzeko. Guztia musutruk! Eskatu informazioa!

Berba lagun 639 400 786
www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@aek.eus



Bizkaiko aurtengo sagardoa "samurra, gorpuzkera gaztekoa eta alkohol maila baxukoa" da

Zornotzako Uxarte sagardotegian zabaldu dute, asteen, Bizkaiko sagardoaren aurtengo txotx denboraldia



Ekoizleek, agintari politikoek eta sagardo denboraldia zabaldu duten protagonistek Zornotzako Uxarte sagardotegian bat egin zuten egunean.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Bizkaiko 11 sagardo ekoizle, 150.000 litro inguru, eta Zornotza erdigunean. Uxarte sagardotegia izan da Bizkaiko txotx denboraldia martxan ipintzeko aukeratu duten

eszenatokia; eta Javier Conde eta Mikel Garcia atletak protagonistak. Bizkaiko sagardogileen elkarteak 2019ko uztaren emaitza aurkeztu du asteen, eta aurtengo sagardoa honako ezaugarri hauekin definitu

dute: samurra, gaztea eta ohi baino alkohol maila baxuagoa duena, 6 gradutik beherakoa, hain zuzen ere. Txotx denboraldia zabaltzeko ekitaldian egon denetariko bat Juan Zuriarrain enologo donostia-

rra izan da. Bere esanetan, "aurtengo sagardoak gaztetasun puntu bat du. Aho-sentipen samurrekoa da eta gorpuzkera irabaziko du botilaratzen den unetik aurrera". Edozelan ere, Bizkaiko Sagardogi-

leen Elkarteko kideak oso pozik daude emaitzagaz. Aitor Intxaurrega presidenteak uztaren balantze "baikorra" egin eta emaitzaren "kalitatea" azpimarratu du. 2019a sagar ugariko urtea izan arren, itxarondakoa baino gutxiago batu dute. Uda sasoiko sikateek fruituaren garapena eraldatu dute, baina horrek mesede egin dio amaierako emaitzari. Izan ere, sagarra batzerako unean ale bakoitza zorrotz aukeratzeak sagardoaren kalitatea hobetzea ahalbidetu du.

Udako sikateek sagarrei eragin dieten arren, sagardoaren kalitateak gora egin du

Bizkaiko sagardo ekoizleez gainera, Zornotzako alkate Andoni Agirrebeitia, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako arduradunak ere egon dira. Elena Unzueta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuak "sagardo tanta bakoitzaren atzean" dauden lana eta "filosofia" goraiatu ditu. Bestalde, Peli Manterola Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industria zuzendariak sagardoa munduratzeko egin daitezkeen "berrikuntzak" nabarmendu ditu.



Bizkaiko sagardogileek garaiur bana eman diete Mikel Garciari eta Javier Conderi.

"Ez gaude errekonozimendu hauetara ohituta; pozik eta esker oneko gaude"

Javier Conde eta Mikel Garcia atleta paralinpikoez zabaldu dute aurtengo txotx denboraldia

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Orain urte batzuk arte hau pentsaezina zen. Nekez ikusiko genuen ezintasunen bat zuen kirolaririk halako ekitaldi batean. Egokitutako kirola egiten dabilen bidearen ispilu da honakoa. Ez gaude errekonozimendu hauetara ohituta; pozik eta esker oneko gaude", dio Javier Condek (Basauri, 1964). Condek atletismo arloko makina bat domina irabazi ditu Olinpiar jokoetan. Besteak beste,

Bartzelonan, Sidneyn, Atenasen eta Atlantan eskuratu ditu urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak.

Mikel Garcia atleta Conderen ikaslea da (Bilbo, 1996). Gaztea da, baina dagoeneko argi utzi du gaztea izanagatik beste maila batean dagoela. Iaz urrezko hiru domina eskuratu zituen Australian jokaturako Inas Global Games kirol probetan. 1.000 atleta baino gehiagoren artean nabarmendu

zen Garcia. Egun, Basauriko Saia-tu atletismo klubean entrenatzen da. "Javier gogorra da zenbait kontutan, baina gustatzen zait. Kasu egiten diot, eta badakit horri eskerrak aurrera egingo dudala. Bide horretatik segitu gura dut", adierazi du.

Aurtengo sagardoari buruz ere berba egin dute. "Ederra dago. Badu ukitu hidratatzaile hori. Sagardoa asko gustatzen zaigu, eta, batek daki, beharbada indarrak berritzeko edari modura gomendatu beharko dugu", diote barre artean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko urtarrilaren 24a
18. urtea - 791. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



SORMENA

Aurten ere, 5 urteko gela-
tan TTIPIA proiektua jarri
dugu abian Andramari
Zornotzako Ikastolan, LO-
RALDIA ESKOLA Kultur
Elkartearen eskutik.

Loraldia Eskola egitas-
moaren bitartez, umeen
sormena suspertu eta aldi
berean Euskal Kultura-
ren transmisioa bermatu
eta kulturarekiko atxi-
kimendua indartu nahi
ditugu Loraldia Elkartek
eta Andramari Zornotzako
Ikastolak, egun lanean
dabiltzan Euskal Herriko 4
artista plastikoren eskutik.

2019ko azaroan, 4 egu-
netan, Ikastolako txikien
ahots eta gorputz bidez-
ko adierazpena jolasgai
bihurtuz, sortze-prozesua
indartu eta elkarlana bul-
tzatuko dugu ilustratzaile,
margolari, eskultore eta ar-
gazkilari baten laguntzaz.

Egitasmo horrek Euskal
Kulturaren transmisioa
sustatzea du helburu, eta
ikasleen inguruabarra osa-
tzen duen komunitatetik
—senideak, lagunak...—
abiatzen da, egungo errea-
litatea kontuan hartuta.

Umeen sormena indar-
tzea bilatzen dugu, ikus-
teko, asmatzeko, taldean
lanean egiteko, amesteko eta

ondorioak sortzeko duten
berez-berezko gaitasunaz
baliatuz. Informazio eta
baliabide berriak eskain-
tzen dizkiegu eta, beraien-
gan sorrarazten dituzten
ideia, irudi eta asmo be-
rriak irudimenetik eus-
karri fisikora ekartzeko
gaitasuna lantzeak bere-
biziko garrantzia du, gure
ustez.

Ezinbestekoa da goian
aipaturiko kulturarekiko
atxikimendua lortzea,
mundu digitalaren aro
zoro honetan mundu glo-
balizatuak etengabean
zabaltzen dituen “moda-
ko” mezu eta irudietatik
haratago kultur aniztasu-
naren garrantzia azpima-
rratzeko.

Hori guztia lortzeko,
ordea, nahitaezkoa da
txikien adierazpena lan-
tzea, ikaskideen artean
genero, arraza edota bes-
te arrazoiak medio bizi
daitezkeen (dituzten) des-
berdintasunak onartuz
eta errespetatuz, maitasu-
nean eta alaitasunean gara
daitezkeen. Bere gaitasunak
zein adierazpidetan hezur-
mamtzen diren ikusiz,
ume bakoitzak bere burua
hobeto ezagutzeko ere ba-
lio izango du jardunak.



MATRIKULAZIOA ZABALIK

Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

ATE IREKIAK

Urtarrilak 27 (18:00 - 19:00)

Umeen zaintza ere eskainiko da

Izena emateko:

94 673 29 50 edo zomotza@ikastola.eus



Ikerketa taldea Otxandioko indusketa gunean lanean.



Iturri publikoaren aztarnak: hobia eta bertara doan kanalizazioa.

Iturri publiko baten eta errementari tailer baten arrastoak aurkitu dituzte Otxandioko plazako indusketetan

Bizileku moduan erabilitako beste egitura bat Otxandio hiribildu izendatu aurrekoa litzateke, X-XIII. mende artekoa

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Ikerketa taldeak amaitu ditu Otxandioko plazako indusketak. Laborategiko analisien zain dauden arren hipotesiak egiazatzeko, nahikoa elementu aurkitu dute gune haren garapen historikoa zirriborratzeko.

Aurkitutako arrastorik zaharrena bertan bizitzeko erabiliko zen egitura batenak dira, zurez eta material galkorrez egindakoa. "Beste indusketa batzuetan aurkitutakoe-

kin alderatuta, horrelako egiturak X. mendetik XIII.era artekoak izaten dira. Beraz, Otxandio hiribildu izan aurrekoak lirakeke", azaldu du Belen Bengoetxea EHUko arkeologia irakasle eta ikerketa taldeko kideak. Hau da, XIII. mendearen erdi aldera Diego Lopez de Haro Bizkaiko Jaunak Hiri-Gutun baten bidez Otxandiori hiribildu izaera eman aurreko arrastoak lirakeke.

Beste gune batean, hobi handi batera lotutako kanalizazio arras-

toak aurkitu dituzte. Iturri publiko baten aztarnak direla ondorioztatu du Bengoetxeak, zirkulu-forma izango zuena, gaur egun plazaren beste aldean dagoen Vulcano iturriak duenaren antzekoa. Iturri hori espazio publiko baten barruan eta bide baten ondoan egongo zen. "Beraz, joan-etorri handia egongo zen han, eta iturriak, herritarrak hornitzeko ez ezik, kanpotik zetozenak asetzeko ere balioko zuen", uste du Bengoetxeak. Iturri hori

XIV-XV. mende ingurukoa litzateke, Erdi Aro berantiarrekoa.

Indusketak errementari tailer baten aztarnak ere bistaratu ditu, XVI-XVII. mende ingurukoa. Burdinazko elementu txikiak aurkitu dituzte; baita labe batenak ere. Argi dute han sua egiten zela, markak ikusi daitezkeelako. "Ez dakiguna oso ondo da tailer horretan zer egiten zen", dio Bengoetxeak. Baina ganibet zatitxoak aurkitu dituzte eta litekeena da aiztoak egiteko erabili izana.

Landa lana amaituta, indusketan batutako materiala garbitzen eta inbentarioa egiten dabilta orain, Gasteizko unibertsitateko zentro batean. Gainera, hainbat lagin laborategian analizatuko dituzte. Ondoren, memoria idatziko dute.

Bisita gidatuak

Indusketa gunera bisita gidatuak antolatu dituzte. Otsailaren 2ko eta 9ko domeketan izango dira. Egun bakoitzean txanda bi egongo dira: 11:00etan eta 12:00etan. Otsailaren 2ko 12:00etako txanda gaztelaniaz izango da eta gainerako hirurak euskaraz emango dituzte. Taldeen pertsona kopurua mugatua da eta izena aurretik eman behar da idadzkaritza@otxandio.eus helbidera idatzita edo telefonoz udaletxera deituta.

Zengotitako garbitegia eta Artetako ermita eraberrituko dituzte Mallabian

Aurrekontuetan 40.000 euro gorde dituzte herriko ondare historikoa berreskuratzeko

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Aurtengo aurrekontuetan, Mallabiko Udalak 40.000 euro gorde ditu herriko ondare historikoa berreskuratzeko. Hain zuzen ere, Artetako ermitan eta Zengotita auzoan dagoen garbitegian egingo dituzte lanak. Artetako ermita zahartuta dago gaur egun. Sasoi batean, udan jaiak ospatzen ziren

bertan, baina gero bertan behera geratu ziren ermitaren egoera txarragatik. Ermitari aterpe berri bat egingo diote, beste lan batzuen artean. Zengotitako garbitegia ere zahartuta eta sastrakaz inguratuta zegoen. Sastrakak garbitu dituzte eta aurtengo garbitegiko teilatua berritzea da helburua, besteak beste.

Aurtengo aurrekontuak iazko azaro amaieran onartu zituzten eta urtarrilaren 3tik indarrean daude. EAJren aldeko botoekin irten ziren aurrera. EH Bildu abstenitu egin zen. Mallabian gazteleku bat sortzea da udalaren aurtengo beste helburu bat, eta, horretarako, 100.000 euroko atala gorde dute.



Zengotitako garbitegian teilatua eraberrituko dute, besteak beste.



Udal ordezkariak eta lurretako elkarreetako kideak prentsaurrekoan.

Atzeritarrei harrera egiteko liburua kaleratu dute lurretan

Herriari eta dauden zerbitzuei buruzko informazioa batu dute eta euskara erabili dute lehenengo hizkuntza moduan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Lurretara lehenengoz datozen atzeritarrei harrera egiteko liburuxka kaleratu du udalak, herriari eta dauden zerbitzuei buruzko informazioa batzen duena. Euskara erabili dute lehenengo hizkuntza lez, eta gaztelaniaz ere jasotzen du informazioa. Herrian erreferente diren hizkuntzei ere egin diete

lekua: frantsesari, ingelesari, arabierari eta errumanierari. "Baliabide bat izatea gura dugu, kanpotik datorrena etxeko sentitu dadin, lurreta anitza eta kolore askotarikoa eraikitzeko", dio Zorione Fundazuri kultura zinegotziak. Elhuyarren laguntza izan dute eta herriko beste herrialde batzuetako elkarten ekarpenak ere jaso dituzte.

Aterpe berria ipini dute Zaldibarko Jose Antonio Agirre plazako jolasgunean

ZALDIBAR • A. M.

Joan zen abenduan hasitako lanak amaitu, eta aterpe berria estreinatu dute Zaldibarko umeen jolasgunean, Jose Antonio Agirre plazan, hain zuzen ere. Zaldibarko alkate Jose Luis Maiztegi aterpearen premia azpimarratu du: "Proiektu hau herritarren eskaera bat zen, eta aurreko legegintzaldian onartu zen. Zalantzarik barik, beharrez-

"Zalantzarik barik, beharrezkoa zen jolasgune hau ahalik eta bizkorren estaltzea"

koa zen jolasgune hau ahalik eta bizkorren estaltzea, Zaldibarren ez daukagulako espazio estalirik, eta egun askotan euria egiten duenez, ezinbestekoa zen herrian horrelako azpiegitura bat edukitzea".

Guztira, 90.000 euro

Aterpea ipintzeak 90.000 euroko kostua izan du guztira. Diru kopuru horretatik 37.500 euro inguru Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu ditu. Gainerakoa ordaintzeko ardura Zaldibarko Udalak hartu du bere gain. Egur House System enpresak hasi eta amaitu ditu aterpea egiteko lanak.



Egur House System enpresak egin du aterpea.

Abadiñoko Udalak euskara klaseak hartu dituzten 43 herritarri lagundu die diruz

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

2018-2019 ikasturtean euskara klaseetara joan diren abadiñarrak udalaren diru-laguntza jaso dute. Udalak 7.500 euro banatu ditu euskara ikasteagatik diru-laguntzak galdegin dituzten eskatzaileen artean. Guz-

2017-2018 ikasturtean baino 15 ikasle gehiagok eskatu dituzte diru-laguntzak

tira, 43 izan dira udalaren zerbitzura laguntza eske jo duten ikasleak, aurreko ikasturtean, 2017-2018an, baino 15 gehiago. 28 izan ziren ordukoak, eta udalak 6.460 euroko diru-laguntza banatu zuen.

Abadiñoko Udalak ohar batean jakitera eman duenez, eskatzaileek jaso dituzte dagoneko diru-laguntzak. Sostengu hori euskaltegiatiko matrikula kostuaren zati bat ordaintzeko baliatuko dute ikasleek.

Frankismoko ikurrak kentzeko mozioa onartu dute Berrizen, bigarrenez

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2009an, Ezker Abertzaleak herriko ikur frankista guztiak kentzeko mozioa aurkeztu zuen Berrizko Udalean. Aho batez onartu zuten EAE-ANVk aurkeztutako mozioa. 11 urte geroago, talde politiko batek berriro eraman du gaia osoko bilkurara, eta herrian gelditzen diren ikurrak kentzeko eskatu du. Oraingoan, Berrizen Podemosekoek aurkeztu dute mozioa. "Uste dugu ordua dela ikurrok kentzeko", esan zuen David Jimeno zinegotziak. Podemos alderdiko kideak esan zuen Berrizen hiruzpalau ikur detektatuta dituztela.

EAE-ANVk proposatuta hasi zuten bideari jarraipena eman, eta herrian zer sinbolo dauden begiratuko dutela esan zuen Orlan Isoird alkateak. Bestalde, EH Bilduren bozeramaileak azaldu zuen mozioa onartu zenetik hainbat bider eskatu diotela udalari ikurrak kentzeko, eta garrantzitsua dela azterna horiek ahalik eta arinen kentzea.

GLB Berria.

Utzi bizitzak harritu zaitzan.

Bizitza nolakoa izango den jakitea ezinezkoa denez, bizi ezazu GLB berriarekin. Gidatu Mercedes-ek duen SUV konpakturik malguena eta utzi bere diseinu sendoak eta kirol-diseinuak harritu zaitzaten. Gainera, gozatu karga modularreko espazio handiaz; honek zure behar guztietara egokitze aukera emango dizu. Horrela, etorriko den bidea gorabehera, bidaia-lagunik onenarekin egin ahal izango duzu.

Ekipamendua:

- Ukipen-pantaila duen widescreen gidatze-postua.
- MBUX adimen artifizialeko sistema.
- Luzetara erregulatzeko moduko atzeko eserlekuak.
- Eserlekuen hirugarren ilara, aukerakoa.
- Atzera-martxako kamera eta PARKTRONIC.



Mercedes-Benz

Aguinaga

Mercedes-Benz Kontzesionario Ofiziala
Retuerto kalea, 38. 48903 BARAKALDO. Tel.: 94 497 00 74. Boroa enpresa-parkea, 2A-3 partz. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47.
Botica Vieja kalea, z.g. 48014 BILBO (DEUSTU). Tel.: 94 447 08 40. Iparraguirre etorbidea, 90. 48940 LEIOA. Tel.: 94 463 11 75.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Durangoko Euskaraldiak bilera zabala egingo du urtarrilaren 28an, Pinondon

Aurtengo ekimenaren inguruko azalpenak emateko eta Durangoko batzordea martxan ipintzeko deitu dute batzarrera; aurten, euskararen entitateei zuzenduta egongo da



2018ko Euskaraldian egindako argazkia.

DURANGO • JONE GUENETXEA

2020an Euskaraldia dator berriro ere, kasu honetan azaroren 20tik abenduaren 4ra bitartean. Aurtengoa, baina, ez dela 2018koaren modukoa izango gogoratu du Euskaraldiko batzordeak. "Hasteko, 11 egunetik 15 eguneko ariketa soziala izatera pasatuko da. Baina ez da hau aldaketa nagusia: aurtengo Euskaraldian ez dute bakarrik

"Aurtengo Euskaraldian ez dute bakarrik norbanakoek parte hartuko, entitateek ere parte hartuko dute"

norbanakoek parte hartuko, entitateek ere parte hartuko dute". Entitateak herriko elkarte, enpresa txiki, enpresa handi eta bestelako taldeak izan daitezke.

Hau guztia antolatzen, urtarrilaren 28an, martitzena, bilera zabala egingo dute, 19:00etan, datorrenaren azalpen zehatzagoak eman eta Euskaraldiko Durangoko batzordea martxan ipintzeko.

Honenbestez, laguntza eskaini edo parte hartzeko prest dauden durangarrak gonbidatu dituzte bilera honetara, aurtengo Euskaraldiko batzordea osatu eta hau ahalik eta emankorrena izan dadin.

Durangoko Udalaren "norabide eta plangintza falta" salatu du EAJK

Legegintzaldia hasi zenetik hona, udal gobernu taldeak "promesa asko" baina "aurrerapauso gutxi" egin dituela kritikatu dute. Gardentasun falta ere salatu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EAJK agerraldia egin du asteon, udal gobernu taldearen kudeaketarekiko duen "kezka" azaltzeko. Mireia Elkoroiribe EAJren bozeramaileak esan du "gobernu taldeak promesa asko" egin dituela, baina "aurrerapauso gutxi". "Ez da hobekuntzarik egon pediatrian, tren geltokiari buruzko kontsultan, airearen kalitateari buruzko foroan, Landako Erakustazokaren erabileran edo Merkatu plazarako proiektuan. Badakigu ezin dela dena 7 hilabetean egin, baina kezkatzen gaitu helburu bat betetzat ematea, ezer aldatu ez den bilera bat eginez", esan du.

EAJren iritziz, kontraesankorra da EH Bilduk oraingo eta aurreko legegintzaldian izandako

komunikazio jarrera. "Aurreko gobernuarekiko gardentasunik ez zegoela errepikatzen urteak eman ondoren", 6 hilabete hauetan

"Ez da aurrera egin pediatrian, geltokiko kontsultan, edo merkatu plazaren proiektuan"

"egoera larriagotu" egin dela esan dute. Bestalde, aurrekontu parte-hartzaileek "gastu inportante" bat eta herritarrenganako "engainu txiki bat" eragin dutela ere gaineratu dute. "Gobernu taldeak alde aurretik proposatzen zituen ideiak balioztatzen" balio izan dutela uste dute jeltzaleek.



Durangoko EAJko kideek astelehenean egin zuten agerraldia.

81 led argi ipinita, herriko argiztapena hobetu gura dute Atxondon

Lanekin, zerbitzuan "hobekuntza nabarmenak" lortuko dituztela azaldu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak



Argindar faktura %39 murriztea aurreikusten dute.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Argiztapena eta argindar sarea hobetuko dituzte Atxondon. Horretarako, herrian zehar 81 led argi instalatzeko kontratazio prozeduragaz hasi dira, udal arduradunek ohar bidez azaldu dutenez. Horrez gainera, Apatamonasterioko hiru

Atxondoko Udalak 49.500 euro erabiliko ditu lan horiek egiteko

oinarrizko koadro elektriko konponduko dituztela gaineratu dute. Lan horiek egiteko, 49.500 euro erabiliko dituzte.

Xabier Azkarate Atxondoko alkateak azaldu duenez, "lan hauekin hobekuntza nabarmena lortuko da zerbitzuan, argiterian mozketak ekidingo dira eta herriko gunerrietan led argiak ipintzeaz batera argindar faktura %39 murriztuko da".

Eguaztenean Antton Lopez atxilotu zuten; egun berean deklaratu, eta aske gelditu zen

Polizia operazio berean beste hiru lagun atxilotu zituzten

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguazten goizean, Guardia Zibilak Antton Lopez 'Kubati' elorriarra atxilotu zuen, Zarautzen. Polizia operazio berean Oihana San Vicente, Oihana Garmendia eta Haimar Altuna atxilotu zituzten.

Atxiloketen ondoren Barne Ministerioak ohar batean azaldu zuenez, 2016tik 2019ra 95 harrera ekitaldi antolatzea, "terrorismoa goratzea" eta "biktimak umiliatzea" leporatzen diete Sortuko lau kideei. Ministerioaren esanetan, lau atxilotuek harrera ekitaldien "benetako burua" osatzen dute, eta, ustez, hainbat erakunde erabiltzen zituzten ekitaldien benetako antolatzaileak nortzuk ziren ezkutatzeko.

Goizean atxilotu zituzten lau kideak, eta, deklaratu eta gero, arratsalderako aske gelditu ziren. Antton Lopez izan zen irteten azkena; 17:00 inguruan irteten zen Intxaurrendoko kuartelitik.

2016tik 2019ra 95 harrera ekitaldi antolatzea leporatzen diete lau atxilotuei

Sortuko idazkari nagusiak, Arkaitz Rodriguezek, adierazi zuen atxiloketek ez dutela "inolako logika juridikorik".

Iazko diru kopurua gaindituta, garaitarrek 800 bat euro batu dituzte San Anton egunez egindako errematan

Diruaren erdia elizako gastuei aurre egiteko baliatuko dute; beste erdia, Ekuadorreko proiektu batean inbertitzeko

GARAI • EKAITZ HERRERA

Lazaro Milikua garaitarra "pozik" agertu da aurtengo erremata utzitako emaitzagaz. "Iaz 600 bat euro batu genituen eta kopuru hori gainditzea lortu dugu aurten. 800 bat euro batu ditugu", adierazi du. Joan zen barikuan egin zuten urteroko erremata, Garaiko Elizabarrin, San Anton egunez. Eguerdiko meza amaituta, herritarrek eliza barruan geratu ziren enkantea noiz hasiko.

Dena prest zuten mahai baten bueltan: porruak, ardi esnea, oilandak, untxiak... Lazaro Milikuak egin zituen zeremonia lanak. Milikuak hamazazpi urte daramatza bitartekari lanetan, eta belaualdi gazteago batek bere ardura noiz hartuko zain ere badagoela aitortu zuen. Bestalde, enkantera eramandako salda beroa eta herritarrek produktua eskuratzeko izandako norgehiagokak lagungarriak izan ziren hotzari aurre egiteko.

Momentuka, apala izan zen lehia. Berehalakoan, baina, bizitu egiten zen. Tostadak, marmela-

da, untxiak eta pastelak lortzeko ahaleginek bizitu zuten lehia. Par-taideen artean egon zen Virginia Ormaetxea garaitarra. "Txorizoa, ogia eta kiwi sorta bat eskuratu ditut. Urtero etortzen naiz eta urtero egiten dut kiwi sorta eskuratzeko ahalegina. Etxean ez dut halakorik eta hemengoak oso gozoak izaten dira", dio. Urtero errematara hutsik egin barik doan horietarikoa da Ormaetxea. "Jubilatu nintzenetik, urtero etortzen naiz eta jubilatu aurretik ere hainbat urtez etorri izan naiz, beharrez baimena eskatuta", esan digu.

Agus Arregi garaitarrentzat ere data inportantea da errematakoa. Tostadak eta sagardo botila eskuratu ditu aurtengo errematan. "Ahal dudan guztietan etortzen naiz. Gustatzen zait sortzen den giroa, produktuak ikustea, Lazarok berak ipintzen duen giroa. Elkar xaxatze hori, produktuak batak besteari kentzeko jolas hori, polita da. Gainera, helburu solidario bat ere badu errematak", dio.



Elizpean barik, Elizabari barruan egin dute aurtengo erremata.

"Elkar xaxatze hori, produktuak batak besteari kentze hori, polita da"

Lanean egonagatik, Lazaro Milikuak berak ere hainbat produktu

lortu zituen. "Gustatzen zaizkidan gauzak lortu ditut. Batetik, oilanda bat, eta, bestetik, nire ahulgunea diren tostadak", dio barrez.

Helburu solidarioa

Errematan batutako 800 euroak zati bitan banatuko dituzte. Er-

dia Garaiko elizen gastuak estaltzeko erabiliko da. Beste erdia, ostera, Ekuadorreko proiektu solidario bati laguntzeko. Datorren urtean dokeman izango da San Anton eguna eta diru kopurua handitzea itxaroten dute antolatzaileek.

Nagusiekin Erein prozesuko herri batzarra, astelehenean

MAÑARIA • J.D.

Herriko nagusientzat atseginagoa izango den Mañaria eraikitzea da udala garatzen dabilen Erein egitasmoaren helburua. 2018tik hona, beharrez nagusiak jasotzen dituen txosten bat osatu

dute. Orain, beste batzar txanda batean, beharrezan zerrendako lehentasunak markatzen dabilta, nagusiekin eurekin elkarlanean. Prozesu horretako hurrengo batzarra astelehenean izango da, 17:00etan, kultur etxean.



Txostenean jasotako beharrezanetan lehentasunak markatuko dituzte.

Izurtzako Udala Aldundiko ordezkariekin batu da autoen abiadura gutxitzeko proiektuaren harira

Besteak beste, Izurtzako herrigunean semaforo berri bi eta zebraideak egitea aurreikusten du egitasmoak



Izurtzako Udala urte askoan dabil autoen gehiegizko abiadurari aurre egiteko neurriak eskatzen.

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udaleko eta Bizkaiko Aldundiko ordezkariak batzar bat izan dute asteen. Herrigunea zeharkatzen duen errepidetik dabilzan ibilgailuen gehiegizko abiadura gutxitzea helburu duen proiektua izan dute berbagai. Aldundiak proiektua bidalia dio udalari, eta honek zehaztaper batzuk ditu egiteko. Horiek jakinarazteko helburua du batzarrak. Besteak beste, herrigunean semaforo berri bi eta zebraideak egitea aurreikusten du proiektuak.

KURUTZIAGA KASTOLA
BIZITZEKO HEZI

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

(urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra)

Ikaslea ardatz • Euskara eta euskal kultura
Eleaniztasuna • Berdintasuna
Aniztasuna • Natura

BISITA GIDATUAK NOIZNAHI
Tel. 946200822 / Idazkaritza@kurutziaaikastola.eus
www.kurutziagaikastola.eus

KURUTZIAGA KASTOLA
BIZITZEKO HEZI

ibizabal



Behinola kamineroa bizi zen eraikin horretan.

Hareek denporak!

Hamar urte pasatu dira kamineroaren etxea eraitsi zutela

Traña-Matienako kamineroaren etxea orain dela hamarkada bat bota zuten. Baserriaren inguruan, lanak hasi zituzten A-8 autobidea zabaltzeko. Obren artean inguratuta gelditu zen etxea.

Kamineroaren etxea arrakalduta zegoen, txarto, eta sasoi hartan Abadiñoako alkate zen Jose Luis Navarrok eraikina botatzeko edo eraberritzeko eskatu zion Bizkaiko Aldundi-

ko Herri Lan Sailari. "Baserria konpontzeko asmorik ez badute, obretako makinak han daudela aprobetxatu eta baserria botatzeko eskatu diegu. Erantzunaren zain gaude", azaldu zuen alkateak.

Bada, 2010eko maiatzean, hondeamakinek di-da batean eraitsi zuten baserria, 40 minutuan. Aurretik, eraikina okupatu zuen familia desalojatu egin zuen Ertzaintzak.

Lau hankako mahaia

Juanan Bueno
EH Bildu



Taldea egitea

Urtarrilak 12, egun eguzkitsua baina hotza, negua da, eta hala behar du. Ima Durangoko alkatea eta ni Landako kiroldegiko saskibaloitza partidak ikustera joan ginen, BSR Euskal kopako partidak ikustera. Bada, BSR? Zeuen buruari zer den galdetzen diozue, ezta? Ulertzen dut, niri ere gertatu zitzaidan, eta pena ematen dit.

BSR jokalariai ausartak dira, indartsuak, azken batean norberaren hobetze maila handia dutenak. Saskibaloitza jokalariai gurpil-aulkian. Saskiratze bakoitzean bizi ikasgai bat eman ziguten, lan ikasgai

Saskiratze bakoitzean bizi ikasgai bat eman ziguten, lan ikasgai bat, ahalegin eta gainditze ikasgai bat

bat, ahalegin eta gainditze ikasgai bat. Jokalari hauen-gandik asko dugu ikasteko, bakoitzak bere istorio pertsonalarekin, ezberdinak euren artean baina helburu komun batekin: taldea egitea eta kiroltasunez borrokatu eta irabaztea.

Zer iruditzen zaizue? Bada, nik berriro diot, asko daukagula haiengandik ikasteko. Eskerrik asko goiz hotz hartan emozioz eta zirraraz betetako bost ordu horiek disfrutatze-ko aukera emateagatik. Tristetu ninduen eserleku asko hutsik egotea izan zen. Hurrengoan beteko dugu kiroldegia? Bai, noski! Bizitzan, kirolean bezala, bat egitea da garrantzitsua, taldea egitea.

Helburuak lortzeko, bada, askotan trabak topatzen ditugula, baina guk, jokalariek euren gurpil-aulkian bezala, arnasa hartu behar dugu eta aurrera! "Lepoan hartu ta segi aurrera". Askotan zaila da eta kanpotik hainbat arazo datozkigu gainera, baina berdin dio, indartsuak gara, izan behar gara eta izango gara. Eskerrik asko.

Durangaldea asteen

'Peajea lapurreta bat da' lelopean manifestazioa egingo dute zapatuan

Durangaldea | 'Peajea lapurreta bat da' lelopean manifestazioa antolatu du Ap-8 Peajerik ez! elkarteak zaturako; mobilizazioa Ezkurditik irtengo da, 18:00etan, eta Iurretako ordainlekuan amaituko da. Juan Carlos Poderoso plataformako kideak gogor kritikatu du Bizkaiko Foru Aldundiak Ap-8ko bidesariari eustea eta azken urteetan egin duen kudeaketa. "Durangaldeko bizilagunok diskriminatuta gaude. EAJk inbertsio negargarriak egin ditu urte hauetan, Supersurragez eta Artxandako tunelekin ikusi den moduan. Geu gabiltza horiek guztiak ordaintzen". Domekarako ere beste mobilizazio bat iragarri dute. Bilboko Bailen kalean egingo dute, 11:00etatik aurrera. Une horretan Sabino Arana sariak banatuko ditu EAJk Arriaga antzokian.

Metalgintzako grebaren harira identifikatutako lagunari babesa erakutsi diote epaitegian

Durango | Metalgintzako iazko grebaren harira Zornotzan identifikatu zuten lagunak atzo deklaratu zuen, Durangoko epaitegian. Autoritateari eraso egitea egozten diote identifikatuari. Horren aurrean, Bizkaiko metaleko langileek kontzentrazioa egin zuten atzo epaitegiaren aurrean.

Geu Be elkartearen aldeko bosgarren zumba maratoia egingo dute urtarrilaren 25ean

Durango | Bosgarren urtez, zumba maratoia antolatu dute Durangon Geu Be elkartearen alde. Maratoia Landako I kiroldegian izango da eta 18:30ean hasi eta 21:00etan amaituko da. Ekimenean hainbat zumba irakaslek parte hartuko dute. Sarreak Geu Beren egoitzan, kiroldegian eta Piso On-en bulegoan eskuratu daitezke. Zumba irakasleek ere izango dituzte salgai.

Lourdesko Amako ikasleen eskutik, Erdi Aroko Elorrio irudikatzen duen erakusketa

Elorrio | Iturri Kultur Etxean erakusketa berezi bat dago ikusgai, Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxeko ikasleena, hain zuzen ere. Lau maketen bitartez, Erdi Aroko Elorrio zelakoa zen erakutsi diete herritarrei. Lehenengoak Elorrio eta bere inguruak irudikatzen ditu. Bigarrenak herri erdigunea eta bertako kaleak, hirugarrenak garai hartako herriko etxe bat, eta azken maketak dorretxe bat.



Durangoko agenda kulturala biltzen duen DKB! aplikazio berria aurkeztu dute

Durango | Mugikorretarako 'Durango Kulturaz Blai!' app berria aurkeztu zuten Durangon, eguenean. Ekitaldien prezioa, ordua, hizkuntza eta bestelako informazioa eskainiko die erabiltzaileei, eta Android zein iOS plataformetan erabili daiteke. "Herrian zegoen gabezia bat betetzeko asmoz sortu dugu aplikazioa", azaldu zuen Julian Rios alkateordeak. "Kultura antolatzaileek elkar ez zapaltzeko" tresna legez aurkeztu du Ane Abanzabalegi zinegotziak: "Erabiltzaileek eskura izango dute Durangon egingo diren ekitaldiei buruzko informazioa, eta antolatzaileen lanari ere ikusgarritasuna emango zaio". Bestalde, Maider Larrañaga San Agustin kulturguneko koordinatzaileak dei egin die eragileei aplikazioa elikatze-ko, udalak martxan ipini duen agenda@durango.eus helbidera idatzita.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

INGURUMEN GEHIGARRIA



ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK



www.soul-cemosa.es



cemosa

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99



01/30 - 02/02

Urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra

31 | OSTIRALA



HITZ BERDEA GUNEA Jardunaldi Profesionalak

10:00: Azokaren irekiera.

10:30 - 12:30: I. Bloke Tematikoa: Bioekonomia.

01. Testuinguru hitzaldia.

02. Aurkezpenak.

- "Euskadi iraunkorrerako baso Bioekonomia zirkularra". *Baskegur*
- "Egurra: Zure etxebizitza eraikitze materialik egokiena". *Construcciones Confort home*
- "Packaging konpostagarria". *Titan Bioplásticos*

12:30 - 13:30: Azokaren inaugurazioa eta bisita ofiziala.

13:30 - 14:00: Arasur Parke Fotovoltaikoa. Proiektu aitzindariaren gako teknikoak. EVE

16:00- 19:00: II. Bloke Tematikoa: energia eta klima larrialdia: "GIH hirietarako" irtenbideak.

01. Testuinguru hitzaldia.

- "Mugikortasun Iraunkorraren integrazio bertikalak eta maila anitzekoak GIHtan". *Iratxe Garcia Gil, IVL/LEE*
- "Hiri eta eraikin iraunkorrak. Gure erantzunkizuna edo beste batzuen?". *Ana Sánchez-Ostiz*.

02. Aurkezpenak.

- "Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa". *CIFP Repelega*
- "Familia bakarreko etxebizitza eraginkorra: berokuntza eta aireztapen instalazioa". *Lansolar*
- "Energia Berriztagarriak". *Ekidom*
- "FTV-ak Jabeen Komunitateetan. Energiaren jabekuntza". *Stechome*
- "Irisgarritasuna eta energia aurrezpena zure etxean". *Cibes Lift Ibérica S.L.*

01 | LARUNBATA



HITZ BERDEA GUNEA Jardunaldi Profesionalak

10:30 - 13:30: III. Bloke Tematikoa: Esperientziak.

01. Aurkezpenak.

- "I-Teck eraikuntza-sistema ekoeraginkorra". *DBSconstrucciones - Instalteck*
- "Fatxada aireztatueterako soluzio berria". *Paneles composite-SMC. Composites Martiartu*
- "Klimatizazioan energia aurreztea eta etxea aireztatzearen garrantzia". *Conves*
- "Etorkizuneko berokuntza". *Eguski Solutions*
- "Landare-jatorriko film konpostagarrien elikagaiak eta elikagaiak ez diren propietateak eta erabilerak". *Titan Bioplásticos*
- "Kondentsazio teknologia biomasaren galdaretan". *Ökofen*
- "SATE eraikuntzarako aurrezte eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko tresna gisa". *Isaval*

02. Mahai-ingurua.

13:30 - 14:00: Jardunaldien ondorioak eta itxiera.

02 | IGANDEA



HITZ BERDEA GUNEA

10:30 - 13:00: Aurkezpenak.

- "Aldaketa Klimatikoa eta krisi energetikoa". *Roberto Bermejo Gómez de Segura*
- "Ekoizpen berriztagarria eta autokontsumoa". *Álvaro Campos Celador (Ekologistak Martxan)*
- "Zure etxebizitza ekoefizientzia, osasun eta erosotasun irizpideekin eraikitzen dugu". *Confort home Eraikuntzak*
- "Etorkizuneko berokuntza". *Eguski Solutions*
- "Bizikleta hiri mugikortasun iraunkorrerako alternatiba gisa". *Biziz Bizi Elkarte*

Eraginkortasun energetiko eta ingurumen berrikuntzaren azoka



energy

Eraginkortasun energetiko eta
ingurumen berrikuntzaren azoka
Feria de la eficiencia energética e
innovación medioambiental

01 / 30 - 02 / 02

Urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra
Del 30 de enero al 2 de febrero

berdeago

Landako Gunea, Durango
www.berdeago.com

nature

Kontsumo arduratsuaren azoka
Feria de consumo responsable

02 / 08 - 02 / 09

Otsailaren 8tik - 9ra
Del 8 al 9 de febrero



antolatzailea | organizador



babesleak | patrocinadores



berdeago
nature**02/08 - 02/09**

Otsailaren 8tik 9ra

08 | LARUNBATA **HITZ BERDEA GUNEA**9:30 - 10:30 | Goizeko Yoga Sesioa. *Hazi Infinito*

11:30 - 14:30 | Elikadura konziente eta berritzailea

- Ezti merkatu globalizatua, ezti organikoa kontsumitzen. *Verdemiel Ecológica*
- Insektuak gure elikaduran. *Insekt Label Biotech*
- Elikadura konzientea. *Marisatsa*
- Dieta Alkalinoa eta kolageno ortomolekularra: Big Food / Big Pharma-ren aurka. *Citric Diet*

16:30 - 18:30 | Turismo jasangarria

- Ceres Ecotur Ziurtagiri ekologikoa. *Ecotur*
- Turismo eredu iraunkorrerako gizarte erantzukizunerako praktika onak. *Teruel Siente*
- 2020erako helmuga iraunkorrenak. Modu arduratsuan nola bisitatu kontatuko dizugu. *Agrotravel*

19:30 | Moda jasangarriaren II. desfilea

 **ZIRKULO BERDEA GUNEA**

11:00 - 14:00 | Ongizatea

- Artilearekin lo egiteak dakartzan onurak. *Pirilana*
- Makilaje eta larruazala zaintzea. *SOS Make Up*
- Norberaren zainketa kontzientea. *Ringana*

 **LUDOTEKA**

12:00 - 19:00 | Hiri berdea sortu dezagun! | BATU ludoteka

09 | IGANDEA **HITZ BERDEA GUNEA**

11:00 - 14:00 | Etorkizun gunea - GIH

- Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka eta emakumei laguntza finantza etikoaren bidez. *Finantzaz Haratago*
- Aldaketa klimatikoa: zer da eta zer egin dezakegu. *Fridays For Future*
- Plastikozko hondakinen kudeaketa, nola birziklatu eta ingurumen arazoaren nundik norakoak. *Greenpeace*
- Energia berriztagarrien sorkuntza proiektuak. *Goiener*

16:00 - 18:30 | Ekonomia zirkularra eta globalizazioa

- Sareko uran dauden arriskuak eta nola ekidin. *Eco Proyecto*
- Ekonomia zirkularra. *Lea Artibai*
- Hegoaldeko herrialdeetan inpaktuzko inbertsioak egiten. *Oikocredit*
- Plastikozko hondakinak, birziklapena eta ekonomia zirkularra. *Ekomodo*

 **ZIRKULO BERDEA GUNEA**

12:00 - 13:30 | Dastaketak

- Spanish Organic Wines. Lezaun Upategia. *Raul Lezaun*

16:00 - 17:00 | Showcooking

- Spanish Organic Wines. Lezaun Upategia. *Raul Lezaun*

 **FILM BERDEA GUNEA (Plateruena)**17:00 | Made in, Made for
Dokumentala.
Bask Brand.20:00 | Oreina
Film-a. Koldo Almandoz
Txintxua Films. **LUDOTEKA**

12:00 - 19:00 | Hiri berdea sortu dezagun! | BATU ludoteka

17:00 - 18:00 | Jostailu ekologikoa, Librería Koloreak

 **Smurfit Kappa**
Central Forestal**50 urte**
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN **Smurfit Kappa**
Nervión

EROSKI, INGURUMENAREKIN KONPROMETITUTA

EROSKIk erronkak sakondu nahi ditu urte berrian, elikadura kontsumo osasungarriagoa eta arduratsuagoa errazteko irtenbideak eman, norabide horretan konpromiso irmoagoak hartuta. Horretarako, EROSKIk plastikoak nola gutxitu, nola birziklatu eta ingurumena nola zaindu aztertuko du.



EROSKI konturatzen da plastikoek zer-nolako kutsadura arazoa eragiten dioten gure planetari, eta, hain zuzen, urteak daramatza hura gutxitzeko saioak gauzatzen. Haren helburua da 2025era iristerako bere ontzietan erabilera bakarreko ohiko plastiko tonak %20 behintzat gutxitzea. Gainera, helburu gisa du produktu fresko ontziratuen ohiko plastikoa %21 gutxitzea dendetan 2021ean.

Plastikoaren kutsadurari aurre egiteko estrategia horretan, EROSKIk eutsi egiten dio bere ontzi guzti-guztiak 2025erako ekodiseinatze konpromisoari. Asmoa da ordurako denak birziklagarriak izatea, gehiegizko ontziratzeak eragozteak eta material birziklatuen eta jatorri berriztagarrikoen erabilera indartzea. Helburu hori lortzeko, kooperatibak martxan jarri ditu zenbait neurri. Nabarmentzekoak dira bezeroengan berrerabilera indartzeko ekintzak. Hala, bezeroei aukera emango die beren ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko —hala nola jakiontzia eta taperrak— harategiaren eta arrandegiaren ataletan. Gainera, orain hilabete batzuk, kooperatibak sare berrerabilgarriekin eginiko poltsa bat jarri zuen erabilera bakarreko plastikozkoaren alternatiba gisa, pisura erosten den fruta eta berdurarako. Sarezko poltsa berriok garbitu egin daitezke, eta gutxienez beste hogeitaz ere erabili. Hor sartzen da, hala berean, pisura saltzen diren produktuen aldeko apustua. Hala, EROSKIk ontzia kendu du EROSKI Natur markako mandarinetan, limoietan, melokotoi gorrian, melokotoi horian, nektarinan, paraguaioan, Eusko Label piperrean eta Euskal Baserri piperminean. Horri esker, dagoeneko pisura saltzen du bere fruta eta berduren %60 inguru. Beste atal batzuetan, pisura saltzen dituen produktuen ehuneko handiagoa da; esaterako, arrandegian, %85etik gora. Gainera, ingurumenean eragin txikiagoa duten beste material batzuekin ordezkatuko du kooperatibak plastikoa. Adibidez, plastikozko bandejak aldatu ditu fruta eta berduren ia 20 erreferentzian, eta, horren ordez, FSC® ziurtagiria duen kartoia darabil, iturri arduratsuetatik datorrela bermatzen duena. Gainera, material birziklatuaren erabilera indartu du, ekonomia zirkularren ereduarekin konprometitu baitago. Hala, haragien eta arrainen %80tan baino gehiagotan plastiko birziklatuz egindako erretiluak

erabiltzen dira; horrela, 45 tona plastiko saihesten ditu urte bakarrean. Opi-gintzan ontziratze erabiltzen diren poliestirenozko erretiluen tokian, berriz, %100 PET birziklatuz egindakoak jarri ditu; horrek esan nahi du 250 tona pasa plastiko birjin gutxiago kontsumituko dela urtean.

Era berean, 2019aren hasieran, irtenbide iraunkorren sorta zabal bat ezarri zuen, erosketetan erabili ohi den plastikozko poltsa ordezkatzeko. Hala, %55ean material birziklatuz eginda dagoenaz gain, FSC® zigilua duen paperezko poltsa berria sartu zuen, zeina %100 birziklagarria baita. Eta beste poltsa konpostagarri bat, landare jatorri berriztagarriko gaiekin ekoitzia eta organikoaren zabor poltsa gisa berrerabil daitekeena. Soluzio iraunkor berri horiekin batera, kooperatibak hor izango ditu lehen ere eskaintzen dituen alternatibak, hau da: poltsa berrerabilgarria —%70 material birziklatuz egina— eta telazko elkartasun poltsa berrerabilgarria, zeina erraz tolesteko modukoa baita, sakelan edo autoan edukitzeko; gainera, poltsa mota horrek batu egiten ditu ingurumena eta elkartasuna, izan ere, bera salduta lortzen den dirua elkartasun kausetarako erabiltzen baita.

Kafe kapsulak biltzea

Kontsumitzaileari kontsumo eredu iraunkoragoak hartzen laguntzeko, EROSKIk kafe kapsulak birziklatzeko proiektu aurrendari bat du Espainiako banaketa handirako. Kooperatibak 2018an jarri zuen martxan proiektu hori, lehenengo EAEn, Nafarroan eta Balearretan, eta pixkanaka hedatzen hasi da iazko azaroan, eta 2020ko udan amaituko du. Kontua da edukiontzi espezifikoak ipiniko dituela behar bezala identifikatuta bere saltokietan, bezeroek bertara bota ditzaten kafe kapsulak.

Kalkuluen arabera, horrelako gaien 130 tona hondakin bilduko dituzte edukiontziok sare komertzial osora zabaltzean. Elikaduraren arloan dihardutenen artean era horretako edukiontziak ipini dituen lehena izateaz gain, EROSKIk aurrea hartu dio Balearretako araudiari; izan ere, autonomia erkidego horretan debekatu egingo dute kapsulen salmenta 2021ean; salbuespena izango dira konposta daitezkeenak edo birzikla daitezkeenak.

Berdeago azokak produktu ekologiko eta jasangarriak egiten dituzten 100 bat ekoizle batuko ditu Durangoko Landako Gunean

Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra eta otsailaren 8tik 9ra, "publikoaren eskariari" erantzun gura dio azokak

DURANGO • IGOR GALARZA

Urtarrilaren 31rako, urte amaierarako, produktu eta ekoizpen jasangarriak elkartzen dituen Berdeago azoka antolatuko dute Durangoko Landako Gunean. Urtarrilaren 30ean ziren azokari hasiera ematekoak, baina greba orokorra dela eta, egun bat atzeratzea erabaki dute. Asteburu bitan egongo da zabalik, eta 100 bat ekoizle euren eskuekin egindako produktuak eskainiko dizkiete bertaraten direnei. Berdeago azokak zortzigarren edizioa du aurtengoa, eta asteburu bakoitzean ildo bat jorratuko dute: urtarrilaren 31tik otsailaren 2ko astebururako, *Berdeago Energy* deituriko asteburu antolatu dute; eta otsailaren 8 eta 9rako, ostera, *Berdeago Nature*.

Eguaztenean egin zuten prentsaurrekoan, Durangoko alkate Ima Garrastatxuk esan zuen "pozgarria" dela Durangok "Berdeago azoka garrantzitsua hartzea". Alde horretatik, Garrastatxuk gaineratu zuen Durangoko Udalak bat egiten duela

"azokak bultzatzen duen filosofia-gaz", eta herri garbiagoa eta jasangarriagoa eraikitzeke lan egingo dutela adierazi zuen.

Aurtengo azokak berrikuntza ugari ekarriko ditu. Horietariko bat da elkargo ofizialak, elkarteak eta klusterrak bilduko dituztela, gatazka ekologikoei erantzuna bilatzeko asmoz. Karmele Gomez Berdeago azokako koordinatzaileak adierazi zuenez, aurtengo helburuetariko bat da sektorean lanean dabiltzanek eskatzen duten profesionalizazioa kontuan hartu eta profesional legezko trataera ematea. Horrez gainera, Gomezek azaldu zuen zergatik aurtengoa, janari ekologikoa ez ezik, jasangarria ere egongo den erakusgai: "Badira zenbait ekoizle zigiluari eutsi ezin diotenak, eta horiek ere kontuan hartu gura izan ditugu".

Eskariari babesa

Berdeago azokako koordinatzaileak azalduetako filosofiari helduz, eskariari babesa eman gura diote.



Karmele Gomez eta Ima Garrastatxu, Berdeago azokaren aurkezpenean.

Lehenengo azokatik hona, 90.000 bisitari, 500 enpresa, 150 hizlari eta 100 jarduera baino gehiago bildu dituzte

Izan ere, "pozik" daude azoka Durangon antolatzeaz, "irismen handia" duelako eta "kokapen aldetik oso ondo" dagoelako.

Lehenengo azokatik hona, 90.000 bisitari baino gehiago izan ditu, eta 500 enpresa jasangarri, 150 hizlari eta 100 jarduera ludiko eta hezitzaile baino gehiago. "Hona

datozen bisitariak sentsibilizazio berezia dute; ikasteko eta jarraira aldatzeko asmoz datoz", esan zuen Gomezek. Ima Garrastatxu alkateak gazteen interesa piztea "garrantzitsua" dela azpimarratu zuen. Horren harira, hainbat ikasle talde joango da ikastetxeetatik Berdeago azoka ezagutzera.

Ez dago B planetarik

Zaindu ura,
eraiki dezagun etorkizuna.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus

“Intsektuak super-elikagai moduan katalogatu dituzte eta horrek interesa sortzen du”

Insekt Label proiektua aurkeztuko dute Durangoko Landako Gunean egingo den Berdeago Azokan



Jose Oleaga, Insekt Label proiektuko bultzatzaileetarikoa bat.

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Insekt Label-ek pertsonen elikadurara bideratutako kilokerrak eta kakalardo larbak ekoizten ditu. Proiektua martxoan jaio zen eta orain inbertsore edo 'partner' bila dabilta hura garatzeko. Lantoki pilotu baterako kokapen baten bila ere badabilta, Josu Oleagak azaldu duen lez.

Nekazaritzako elikatze katean insektuak txertatuz, alternatiba jasagarria eskaini gura duzue.

Bai. Europa eta, oro har, nazioarteko instituzioak arduratuta daude elikadura sistemaren jasagarritasunagaz. Bada, horren aurrean, alternatiba bat eskaini gura dugu: pertsonen elikadurara bideratutako insektuen ekoizpena. Osasun aldetik eskatzen diren balio nutrizionalak betetzen dituen alternatiba da, jasagarriagoa beste nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak batzuekin alderatuta.

Zer produktu merkaturatuko duzue?

Proteina askoko irinak, eta funtsezko beste aminoazido guztiak dituzten irinak. Horrela, insektua osorik ikusita sortu daitekeen

traba kulturala ekidin daitekeela uste dugu. Irinak aukera ematen du egunerokotasuneko askotariko produktuetan jatea: ogi-gaz, pastagaz edo snack moduan. Orain snack-ekin lanean gabiltza, araudia onartzen denerako prest egoteko.

Araudiak indarrean egon behar du orduan.

Europak 'novel food' lez onartu ditu insektuak. Elikagai lez onartuak izateko, trantsizio prozesu horren barruan badirudi aurtan edo 2021ean emango dituztela aurreneko lizentziak European produzitu eta komertzializatu ahal izateko. Gure produktua datorren urte amaieran komertzializatu ahal izatea itxaroten dugu. Dena dela, denbora beharko da gizartean eguneroko produktu lez onartzeko.

Prest gaude insektuak jateko?

Elikagaien sektorean produktu berriak garatzen dituzten enpresek interesa agertu dute. Insektuak super-elikagai moduan katalogatu dituzte eta horrek interesa sortzen du. Gainera, geroago eta gehiago zaintzen dugu zer jaten dugun.



Edonora begiratuta ere energia berriztagarriak ikusiko dituzu

Energiaren Euskal Erakundeak ia lau hamarkada daramatzagu lanean, Euskadik **beharrezko duen energiarekin** bakarrik egin dezan aurrera. **Energia iturri berriztaileen, berriztagarrien eta onenen** aldeko apustua egiten dugu. Bitarteko tekniko eta giza baliabide onenekin. Ahalegin hori, denbora luzearen ondoren, **non-nahi ikus dezakezu.**



“EAEn ez du inork 'racer kafe' estiloko motor eta ziklomotor elektrikorik saltzen”

OX Riders enpresa gazteak motozikleta bereziak sortu ditu: 3D inprimagailuekin eta plastiko degradagarriekin



Martin Fernández de Labastida
OX Riders proiektuko kidea
Galizia | 1994



DURANGO • IGOR GALARZA

Berdeago Azoka urtarrilaren 30ean hasi beharko litzateke, baina greba orokorra dela-eta, 31n zabalduko ditu ateak, Durangoko Landako Gunean. Bertan, besteak beste, Martin Fernández gazteak OX Riders proiektua izango du erakusgai beste hainbat kidegaz batera: plastiko biodegradagarriekin eta 3D inprimagailuekin sortutako bizikleta ekologikoak ekoiztu dituzte.

Zelan otu zitzaizuen halako proiektu bat egitea?

OX Riders sortzeko ideia Ameriketako Estatu Batuetan egiten ari ginen ekintzaile bidaia batean sortu zen. Sei hilabetez egon ginen Seattle-n, negozio-aukera berriak bilatzeko asmoz. Tesla eta Zero enpresek mugikortasun elektrikoaren sektorean duten eragina ikusita, Europako motozikleta elektrikoaren

merkatua ikertzea erabaki genuen, Iberiar penintsulan zentratuz. Orduan uste genuen aukera ona zela OX Ridersen moduko enpresa batentzat.

Zer dela-eta ipini zenioten proiektuari OX Riders izena?

Over-laying kontzeptutik sortu da eta gaur egun dauden joeren arteko elkargunea irudikatzen du: *vintage* estiloa, azken teknologiak eta jasangarritasuna.

Zergatik erabaki zenuten motozikletak egitea?

Euskal Autonomia Erkidegoan ere hazkunde handia izan da ibilgailu horien erabilera. Horregaz batera, ibilgailu elektrikoek geroago eta merkatu kuota handiagoa hartu dute mugikortasunaren merkatuan, eta ikusi dugu oraindino estali bako nitxo bat zegoela: EAEn ez du inork *racer kafe* estiloko motor eta ziklomotor elektrikoak saltzen.

Motoen prestakuntza hobetzeko asmoa duzue?

Gure motozikleta batek 50 km/h-ko abiadura hartu dezake, eta potentzia handiagoko beste batek 120 km/h-koa. Lehenengoaz, batez ere hirietan bizi den publiko gazterak hurbiltzea da asmoa: Bilbora, Donostiara...

OX Riders-en One ereduak 100 kilometroko autonomia dute. Helburua da merkatura aterako ditugun modelo hauen bateriek autonomia handiagoa izatea.

Berdeago azokan egonda zaudete? Zer asmogaz zoazte?

Bai, aurreko edizioetan Berdeagon egon gara, publiko legez, eta beti deitu digu atentzioa gaur egun jasangarritasuna bezain garrantzitsua

“**Uste dut posible dela nagusiki lehengaiak erabiltzeari uzten diogun mundu batean bizitzea**”

den gai baten inguruan sortutako komunitate on horrek. Lehenengoz izango dugu aukera ekitaldian zerbait erakusteko. Oso itxaropentsu gaude, eta aste batzuk barru egingo ditugun gidatze-probetara jendea joatea itxaroten dugu.

Uste duzu posible dela material ekologikoekin bakarrik bizi den mundu batean bizitzea?

Uste dut posible dela nagusiki lehengaiak erabiltzeari uzten diogun mundu batean bizitzea. Guztiok ipini behar dugu gure aletxoak aldaketa nabarmenak lortzeko, bai kontsumitzailearentzat, bai administrazio publikoentzat, bai erakunde pribatuarentzat. Horrez gainera, ekintzaile izan gura duten pertsonen negozio-aukera onak dituzte merkaturaren duten joera berrietarako.

AHOLKULARITZA
PROFESIONALA



TABIRA
COLOR

BERRIKUNTZAK
DITUGU

**AZKEN
BELAUNALDIKO
PINTURETAN**
**PINTURA
EKOLOGIKOETAN**
**ORBANEN
KONTRAKO
PINTURETAN**

**ZATOZ GU BISITAZERA
ETA INFORMATZERA**

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO
Tel.: 946 217 911

JAIAK!

SAN BLAS JAIAK
2020



*Abadiñoko Udalak San Blas
jai zorientsuak opa deutsuez*

www.abadiño.org



Abadiño
Elizateko Udala

San Blas jaiak 2019**Urtarrilak 31, barikua**

18:30 San Blas 2020 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinke-tean.

20:30 Garagardo dastaketa eta parrilada txosnagunean.

21:00 Bertso afaria Gaztañodi elkartean Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagaz. *Txartelak salgai Petite liburudendan eta Abarketeruena jatetxean.

Otsailak 1, zapatua

17:00 Bertso triki poteoa: Igor Galartza eta Bittor Altube.

22:00 Kontzertua txosnagunean:

Alerta
Rukula
DJ "El Txef-a"

Otsailak 2, domeka

12:00 San Blas 2020 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketean.

**Otsailak 3, astelehena
(San Blas eguna)**

AZOKA: Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gaztaia, txakolina, ogia, eztia, artisautza eta landareak. XXVIII. Abelburu erakusketa.

9:00 Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.

11:00 Meza nagusia San Trokaz elizan.

11:00-13:00 BELDUR BARIK GUNEA. Txanporta Plazan. Eraso sexisten kontrako sentsibilizazioa. Abadiño Udalaren Berdintasun Arloak antolatuta.

12:00 Bertsolariak Ferialeku plazan: Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube; aurkezlea, Aitor Bizkarra.

12:00 Herri kirolak probalekuan:

- Urrezko Aizkolariak txapelketako gizonezkoen binakako norgehiagoka 'Eusko Label Saria': Ugaitz Muguerza II eta Julen Alberdi 'Txikia IV' - Iker Vicente eta Jesus M. Mujika
- 'Urrezko Aizkolariak' txapelketako emakumeen binakako norgehiagoka: Irati Astondoa - Maika Ariztegi
- 'Urrezko Harri-jasotzaileak' txapelketako ekitaldia harri handiekin: Julen Diaz - Jokin Eizmendi

17:00 Erromeria Ferialeku plazan: Lotxo taldea

18:00 Idi probak.

**Otsailak 4, martitzena
(San Blas Txiki eguna)**

19:00 Abadiño Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale.

Otsailak 7, barikua

21:00 Idi probak.

Otsailak 8, zapatua

12:30-14:30 Umeendako jolasak Zelaietako frontoian.

16:30-19:30 Umeendako jolasak Zelaietako frontoian.

21:00 Idi probak.

Otsailak 9, domeka

10:30 San Blas 2020 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinke-tean: Txapelketako eskuz binakako finala. Eta ondoren bi desafio....

DESAFIOA BANAKA

Asier Aspuru (Bizkaia) - (Iparralde)

DESAFIOA BINAKA

E. Ziarrusta / Iugarte - (Iparralde)

16:00 Tor magoaren 'Amarru' ikuskizuna Txanporta Kultur Etxean. Lehenengo saioa. Gonbidapenak otsailaren 4tik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

18:00 Idi probak.

18:00 Tor magoaren 'Amarru' ikuskizuna Txanporta Kultur Etxean. Bigarren saioa. Gonbidapenak otsailaren 4tik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

Otsailak 10, astelehena

17:00 Idi probak.

22:00 Idi probak. Ondoren, sari banaketa.

Otsailak 15, zapatua

10:00 XXXII. Burduntziko Bildots Txapelketa.

Txakolin dastaketa.

14:00 Bildots bazkaria probalekuan.

OHARRA

Otsailaren 28tik martiaren 13ra bitartean, San Blas jaiak 2020 argazki lehiaketako erakusketa Errota Kultur Etxean.

ORDUTEGIA:

Astegunetan: 09:00-20:00

Zapatuetan: 10:00-14:00



GURE AMETSA
RADIOFREKUENTZIA
DIDO LASERRA
ILE-APAINDEGIA
.....
Iturritxo, 2A behea
ABADIÑO
(ESTANKO BERRIAREN ONDOAN)
Tel.: 697 313 436

65 urtetik gorakoentzat
DESKONTUAK



**SOLOA
JATETXEA**

Ondo pasa jaietan!
Menu berezia San Blas jaietan
Txanporta, 1 - Abadiño (Bizkaia)
Tel.: 946 202 504 - 946 200 134
www.soloajatetxea.com



**elur
arraindegia**

ORDUTEGIA
Astearte eta ostegunetan:
9:00 - 13:00 eta 17:00 - 19:00
Asteazken, ostiral eta larunbatetan:
9:00 - 14:00

Elur Arraindegia
Zeletabe, 19 Abadiño 48220 Bizkaia
T. 94 612 39 50



**GORETTI
JANARI-DENDA**


Ferialeku, 1 - 48220 ABADIÑO
946 814 028



**neumáticos
ETXEBARRIA**

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarria.com



Jai giroz bustitako neguko uztaren erakustoki zabala bihurtuko da Abadiño San Blas egunean

Abelburuen erakusketa eta salmentak 200 bat abere batuko ditu aurten ere. Bestalde, Txanporta inguruan 27 artisauk ipiniko dute erakustokia

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Baserritarrek landatutako barazki eta frutak, ogia, ezti, kontserbak, esnekiak, txerriak, gazta, sagardoa, txakolina... Produktuen aukera zabala batuko duen plaza bihurtuko da Abadiño San Blas egunean, otsailaren 3an. Nekazaritza azokak 71 produktore batuko ditu denera, trinketaren inguruan. Zazpi bertakoak izango dira, Abadiño-koak, eta beste hamabi ere etorriko dira Durangaldetik. Gainerakoak Bizkaiko beste herri batzuetatik,

San Blas eguneko nekazaritza azokak 71 produktore batuko ditu otsailaren 3an

Gipuzkoatik, Arabatik eta Iparraldetik etorritakoak izango dira. Landareak hazten dituzten ekoizleak ere batuko dira bertan; 13, denera.

Abelburu erakusketa

Txanporta inguruan 27 artisau batuko dira, euren artisau lanak erakutsi eta saltzeko. Bestalde, abelburu erakusketak arraza garbiko 50 abelburu, mando eta pottoka batuko ditu, Solozabal kalean; baita Euskal Herriko zaldiak ere.



Otsailaren 3an, San Blas egunean, hainbat bisitari ibiliko da Abadiño kaleetan.

Aurten, beste urte batzuetan baino gutxiago izango dira, Abadiño-ko abeltzainek eroandako abelburuei eman zaie-eta lehentasuna, arduradunen berbetan; 60 buru izango dira. Erakusketatik kanpo-

Abadiño-ko azokan, ezinbesteko bihurtu dira ezdarriko minerako kordela eta San Blas opila

ra batuko diren abereak kontuan hartuta, 200 bat buru batuko dira Abadiño-ko guztira. Baserriko makineria, zuragaz edo burdinagaz egindako tresneria eta akuiluak ere ez dira faltako.

San Blas egunez, ezinbestekoak dira ezdarriko minaren aurkako kordelak eta San Blas opilak ere. Bestalde, gutxi egingo diote huts taloa jateari, sagardoagaz edo txakolinagaz lagunduta.



ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com



- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxe: 946 810 204



MARKAK HAZTEN DIREN LURRA



www.sorland.eus • 946 810 261



ABARKETERUENA

Iturritxo kalea, 6 • Txanporta plaza
48220 ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

San Blas egunean gurean:
Ogitartekoak
Hamarretakoak
Menuak
Pintxoak

Giro euskalduna eta atsegina egun osoan!

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Abadiñoko txosnagunean Alerta, Rukula eta El_Txef_A artistak arituko dira

Otsailaren 1ean izango dira kontzertuak, 22:00etan. Ondoren, elkartasun lokalean musika jartzaileak egongo dira



MUSIKA • A.M.

Abadiñoko San Blas jaiek deneriko doinuak edukiko dituzte. Otsailaren 1ean, musika kontzertuak izango dira gaueko protagonistak. Eskualdeko talde batek zabalduko du gaua; Alertak, hain zuzen ere. Durangarrak *Tú decides el final* lan berria aurkezteko biran murgilduta daude, iaiztik. Hogeita bi urteko ibilbidean, Blood Fire Death zigiluagaz kaleratu dute lan berri hau. Zuzeneko batzuk eskaini eta gero, disko berriaren aurkezpen birak 2020 osoa hartuko diela iragarri zuten iaiz. Tartean, estatuan ere egitekoak dira biraren zati bat. Talde durangarrak doinu desberdinak jorratu ditu hamarkada bi hauetan zehar, beti ere, metala eta hardcoorea oinarri hartuta.

Rukula talde gipuzkoarra izango da hurrengoa. Usurbilen jaio zen, 2015ean, eta erritmo aldaketez jositako doinu dantzagarriak dakartza. Funk, rock, stoner eta metal doinuak nahasten dituzte, batere konplexurik barik, eta energia handiko zuzeneko kontzertuetan indarra eta dantza egiteko gogo transmititzen dituzte. Lan bi kaleratu dituzte azken urteotan: *Rukula* eta *Hazi Beltzak*. Oihan Agirretxek, Martxel Arkarazok, Beñat Irazustak eta Aitor Pagolak osatzen dute

Rukula tadlea. El_Txef_A izango da txosnaguneko egitarauko azkena. Aitor Etxebarriaren ezizen artistikoa da El_Txef_A; gaitzizen horregaz, musikari gernikarrak hamarkada bat baino gehiago darama musika elektronikoaren eszenan. 2011. urtean lehenengo EPa kaleratu zuen, eta ordutik hona mundu osotik zehar ibili da musika zuzenean nahasten. Harrezkero,

Otsailaren 1ean, Alerta talde durangarrak emango dio hasiera kontzertuen gauari

hainbat proiektutan murgilduta ibili da gernikarra; besteak beste, *Markak* pelikularen soinu banda egin du, eta iaiz *Nihilism Part 1* diskoa kaleratu zuen. El_Txef_Aren saioetan egin ohi duen moduan, musika elektroniko izango da protagonista. Kontzertuen ondoren, elkartasun lokalean jarraituko du festak, eta han ere arituko da musika ipintzen, DJ Alus abadiñarra.

Musika jartzaileak lokalean

Alus ez da izango San Blas etan elkartasun lokalean arituko den musika jartzaile bakarra. Azkenengo urteetan DJ Bull ezaguna ohiko bilakatu da, eta aurten ere egongo da aukera bere doinuekin dantza egiteko. Kalean egingo duen hotzetik babesteko, aukera ederra izango da gorputza berotzeko.



Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

elebe

ileapaindegia

SOLARIUM BERTIKALA
MASAJE LASAIGARRIA
ILE-APAINDEGIA
ESTETIZISTA

Iturritxo, 2 behea
• ABADIÑO •
Tel.: 946 550 105

Talleres Serafín

S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

Gisasola Pentsuak

- EKO GARDEN -



Ortuko landareak urte guztian

Trañabarren, 27 - Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687
gisasola.p@gmail.com

Hiper Eroski Abadiñon erosteko modu berri bat

Ondo pasa San Blas jaietan!

EROSKI Abadiño
hipermerkatu
Inoiz baino hurbilago

EROSKI
Abadiño zurekin

“Ordu asko ematen genituen kortan, eta lan horri errentagarritasuna atera gura genion”

Ibon Lasuenek eta Esther Ugaldeak Gazteluan hazitako behien okela saltzen dute; Lasuen San Blas Azokan izango da

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Etxeko behien okela salmenta zuzenaren bidez banatzen dute, etxerik etxe. Bezeroetarik asko gazteak direla diote Lasuenek eta Ugaldeak.

Ibon, zein abelburu ekarriko dituzu San Blas azokara?

Ibon Lasuen: Pirenaika behiak ekarriko ditut. Bederatzi behi, zekorra eta hiru edo lau txahal ere bai.

Zelan atontzen dituzue abelburuak?

Esther Ugaldea: Aurreko asteburuan kortan abelburuak garbitzen lagunduko diot Iboni. Xaboiagaz garbitzen ditugu.

Erakusleioa ala saltzeko lekua izaten da azoka?

I.L.: Erakusleioa dela esango nuke. Herriko azokara etortzeak egiten dit ilusiorik gehien, eta horregatik ekartzen dut ganadua.

Izaten duzue parrandarako astirik?

I.L.: Eguerdian eramaten ditut behiak etxera. Idi probak ikusi eta Estherregaz eta lagunekin batzen naiz arratsaldean.

E.U.: San Blas eguna urteko egunik politena izaten da. Ni elorriarra izan arren, txikitan jai hartzen

genuen eskolan, eta orain lanean ere bai.

Zelan hasi zineten okela salmenta zuzenaren bidez banatzen?

E.U.: Ordu asko ematen genituen kortan lanean. Oporrak eta aisialdia sakrifikatzen duzu eta horri errentagarritasuna atera gura genion. Iban Urienek eta Gazteluko

“Hilean behin okela paketeak saltzen hasi ginen eta orain asteroko banaketa egiten dugu”

ESTHER UGALDEA

auzokideek laguntzen diguten arren, oso lotua da. Iazko urtarrilean ideari forma ematen hasi ginen. Hiltegiara joan ginen, prezioak ikustera eta ea bideragarria zen aztertzeraz. Lehenengo txahala 2019ko apirilean banatu genuen. Hilean behin okela paketeak sal-



**Ibon Lasuen Arabiourrutia (Abadiño, 1990)
Esther Ugaldea Igartua (Elorrio, 1991)**

tzen hasi ginen eta orain asteroko banaketa egiten dugu. Oso harrera ona izan dugu.

Bezeroen sarea hazten doa?

E.U.: Instagramen eta facebooken profilak zabalduz [Latxaberr Txahal Okela] eta whatsapp bidez zabalkundea eginda bezeroak

“Herriko azokara etortzeak egiten dit ilusiorik gehien, eta horregatik ekartzen dut ganadua”

IBON LASUEN

lortu ditugu. Batzuk Durangaldekoak dira. Abadiñoaren kasuan, harategietara saltzen dugunez, publizitate askorik ez egiten ahalgintzen gara.

E.U.: Kanpoko bezeroak ere baditugu: Berangokoak, Muskizekoak, Bilbobokoak, Santurtzikoak...

ABADIÑOKO BATZOKIA

Ondo pasa San Blasetan!



Ferialeku plaza, 3

MIKEL HARATEGIA

Eskolakua, 2 Tel: 946 815 452
48220 ABADIÑO



MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA
ITZULI DA KEEWAY
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68
motostabira@outlook.es
www.motostabira.es



Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

Z

ZAINDU HAGIN KLINIKA
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi
Periodontzian espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño
Tel.: 94 465 73 42

SERRATU S.L.

Ondo pasa San Blasetan!
Galdaragintza eta itxierak
Enpresetan mantentze-lanak

Astola, 48 ABADIÑO · Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com · www.serratu.com





'Hansel eta Gretel' ANTZERKIA BERRIZ :: Urtarrilak 24

Karameluzko sagarren basoa

Norbaitek munduko errezeta liburu guztiak desagertarazi ondoren, jendeak kozinatzea ahaztu zaio. Jendeak Amonioburger-etako hanburgesak baino ez

ditu jaten. Juan Mari sukaldari ezagunaren negozioa ere ez doa ondo. Bankua du atzetik.

Hansel eta Gretel bere seme-alabek ez dute egoera hori

onartuko, eta bankura joango dira. Aurretik, baina, baso bat zeharkatu beharko dute, karameluzko sagarrak dituen basoa. Berrizko Kultur Etxean ikusgai, 18:15ean.

Urtarrilaren 24an

DURANGO hitzaldia
'Hamaika letra maitasunari' hitzaldia, 19:00etan, Arte eta Historia Museoa. Yolanda Arrieta idazlea izango da hizlaria. Hitzez eta Ahotsez jardunaldien barruan.

ELORRIO bertso afaria
Bertso afaria: Alaia Martin eta Unai Iturriaga, 20:30ean, Txintxirri ikastolan (txartelak salgai ikastolan eta Parra tabernan).

ELORRIO antzerkia
'Zaldi Urdina' (Artedrama + Axut! + Dejabu) 20:30ean, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
'Utzi mezua seinalearen ondoren' (Ttanttaka Teatro), 20:15ean, Zornotza aretoa.

Urtarrilaren 25ean

BERRIZ antzerkia
'Memoria' (Proyecto Tá 17 & Los Colochos), 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO elkartasuna
V. Zumba Maratoi Solidarioa Geu Be elkartearen alde, 18:30etik 21:00etara, Landako kiroldegian. Ondoren, afaria egingo dute Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika
Intxaurregae:
Reggae DJa poteoa girotzeko, 13:00etan.
Kontzertua: Beñaranks + Mountain Sounds, 19:00etan.

DJ-ak: 9mm Seletah (Elorrio) + Berbainde Sound (Otxandio), 23:30ean. Urteurrena ospatuko dute.

DURANGO antzerkia
'Zaldi Urdina' (Artedrama + Axut! + Dejabu) 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZALDIBAR musika
Kohatu (Berriz) + BPP (Durango), 22:30ean, Gaztetxean.

Urtarrilaren 28an

BERRIZ
San Antonio jaiak
Olakuetarren afaria, 21:00etan. Donien Atxa kenduko dute, 19:00etan.

ZORNOTZA zinekluba
KINE zinekluba: 'Ara Malikian: una vida entre las cuerdas' (Zuz: Nata Moreno), 20:15ean, Zornotza Aretoa. Aurretik zineforuma egingo dute 18:45etik 19:45era.

Urtarrilaren 29an

DURANGO opera
'La Boheme' opera HDn, 20:45ean, Zugaza zinemak.

Urtarrilaren 31n

BERRIZ antzerkia
'Bizi dantza' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 17:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia
'Babesleku arrotzak eta animalia bakartien ahotsak', 20:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA zinema
Zinema euskaraz, 17:00etan, Etxegon.

IURRETA ipuinak
Umeentzako ipuin kontaketa: 'Maleta kontuak' (Maider Galartza), 17:30ean, Ibarretxe kultur etxean (3-4 urtekoentzat, heldu batek lagunduta). Bost urtetik gorakoentzat, 18:00etan.

IURRETA ipuinak
Helduentzako ipuin kontaketa: 'Las arenas del sueño' (Virginia Imaz+ Karmelo Muñoz), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

MALLABIA hitzaldia
'Emakumea euskal dantzan: gezur baten historia' berbaldia, 18:30ean, Kontzejuzarreen. Hizlaria: Oier Araolaza.

ZORNOTZA antzerkia
'Oymyakon: habitación 101' (Khea Ziater), 20:15ean, Zornotza aretoa.

Zaldi Urdina
Artedrama - Axut! - Dejabu
Urtarrilak 25, 19:00etan

Comunicado de muerte
Banarte Antzerki Taldea
Otsailak 1, 19:00etan

Gorpuztu
Doos Colectivo
Otsailak 8, 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

ZORNOTZA erakusketa
World Photographic Cup 2020ra izendatua izan den De Pedro argazkilarien lanak, Zelaieta Zentroko erakusketa gelan.

Otsailaren 2ra arte

DURANGO erakusketa
Mª Jose Royuelaren eta Isabel Peraltaren margoak, Ezkurdiko erakustaretoan. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatuta.

Otsailaren 7ra arte

DURANGO izena ematea
Nagusientzat bidaia kulturala: San Petersburgo eta Mosku, maiatzaren 3tik 10era. Izena emateko, otsailaren 7ra arte. Informazioa 94 620 05 46 telefono zenbakira deituta. Zozketa, otsailaren 10ean.

Otsailaren 28ra arte

ELORRIO erakusketa
'Arima hondartua' (Jon Rodríguez Bilbaoren argazkiak), Iturri kultur etxean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

· **El silencio de la ciudad blanca**
barikua 24: 22:00
domeka 26: 19:00

:: Durango ZUGAZA

· **Las aventuras del Dr. Dolittle**
barikua 24: 19:30/22:00
zapateria 25: 17:00/19:30/22:30
domeka 26: 16:30/19:00/21:00
astelehena 27: 18:30/21:00
martitena 28: 20:00
eguzatena 29: 20:00

· **Te quiero imbécil**
barikua 24: 19:30/22:00
zapateria 25: 16:30/18:30/20:30/22:30
domeka 26: 17:00/19:00/21:00
astelehena 27: 18:30/21:00
martitena 28: 20:00
eguzatena 29: 19:00

· **Aguas Oscuras**
barikua 24: 19:30/22:00
zapateria 25: 19:30/22:30
domeka 26: 18:30/21:00
astelehena 27: 18:30/21:00
martitena 28: 20:00
eguzatena 29: 20:00

· **Bobby el erizo**
zapateria 25: 16:30
domeka 26: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

· **El traidor**
zapateria 25: 22:00
domeka 26: 20:00
astelehena 27: 20:00

· **Frozen 2**
domeka 26: 17:00

:: Zornotza ARETOA

· **1917**
zapateria 25: 19:30/22:00
domeka 26: 20:00
astelehena 27: 20:15

· **Ploey. Ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo**
zapateria 25: 17:00
domeka 26: 17:00

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitetz berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak



Unai Iturriaga Zugaza-Artaza · Durango | 1974

Igor Elortza Aranoa · Durango | 1975

“Gerraren gaiagaz lez, heroinaren gaiari ere atepak itxi zitzaizkion hainbat etxetan”

Urrian estreinatu eta gero, Durangaldera heldu da 'Zaldi Urdina'; Axut!, Dejabu eta Artedramako kideek Igor Elortzagaz eta Unai Iturriagagaz batera idatzi dute gidoia; gaur Elorrion eta zapatuan Durangon egongo da ikusgai.

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Hirugarren proiektua dute elkarlanean Axut, Dejabu eta Artedrama konpainiek, Igor Elortzak eta Unai Iturriagak; beste behin ere, "herri memoria" osatu guran idatzi dute. Tekno jaialdi batean, Aingeru gazteak zaldi urdina deritzon droga saldu dio gazte bati, eta hau koman sartu da droga kontsumitu eta gero. Polizia Aingeruren bila hasiko da, eta baita bere familia ere. Obra 1980ko Durangon kokatu zitekeen; berdin-berdin gaur egun ere, izan ere 'Zaldi Urdina' ez da drogari buruzko antzezlan bat. Euskaraz eta euskaldunon auziei buruzko obra bat da.

Gatx egin zaizue gaiari heltzea?
Igor Elortza: Hirugarren lana dugu

elkarregaz, eta lan hauetan badago asmo bat, besteak beste antzerkiaren bitartez herri memoriaren lanketa bat egiteko. Francoren bilobari gutunaren ondoren, hurrengo aukerei buruz berba egiterakoan, nahiko arin irten zen gaia. Eragin handia izan duen gaia da, batez ere belaunaldi batengan, eta memoria herrikoian landu zitekeen gaia zela

“

Aldatzen dira drogak, aldatzen dira formak, baina arazoak, edo azpi-urek, hor jarraitzen dute”

■

uste genuen, baina ez historiagile ikuspuntutik, antzerkitik baino.

Unai Iturriaga: Idatzi aurretik, ez zaigu gatx egin, badagoelako material bibliografikoa, edota bizipen pertsonalengatik. Baina idazterakoan, eta obrari nondik heldu erabakitzerakoan, gatx egin zaigu, bai. Ertz asko dituen gaia da. Ez genuen irakurketa moralista bat egin gura, edo politikoa bakarrik.

I.E.: 80ko hamarkadan, eta gero, heroinagatik bakarrik ez, xiringekin kutsatuta edo hiesagatik hil zen hainbat jende. Drogen erabilera politikoa eta interes ekonomikoak plazaratzen dira obran, baina hildako jende horrenganako berotasunagatik ere idatzi gura genuen. Beste alde hori ere landu eta islatu gura genuen, gizatasunagatik eta memoriarekiko errespetu eta lanke-tatik.

U.I.: Gu, adinez, ume begiradatik izan gara lekuko, eta beldur-erakarmen arteko hori eduki dugu. Dokumental bat egin nuen Zilar Aste baterako, eta elkarrizketatuetako batek aipatu zuen bonbardaketak baino jende gehiago hil zuela heroinak. Bestetik, hildakoen familiez ere mintzatu zen. 'Lotsa eraman behar dute bizitza osoan? Ez da inoiz ezer ere egingo Durangon hau gogoratzeko?'. Barruan geratu zitzaizkidan esaldiok. Antzezlan bera deserosoa izan daiteke horregatik.

I.E.: Gerraren gaiagaz lez, heroinaren eta drogen gaiari ere atepak itxi

zitzaizkion hainbat etxetan, edo atepak berriro ez zabaltzea erabaki zen. Beraz, gai honeguz ere berdin pasatzen da, besteak beste denbora tarte laburra igaro delako harrezkero.

Gaur-gaurko gaia izaten jarraitzen du.

U.I.: Gaur egungo antzezlan bat da. Badirudi iraganean berba egiten dugula, baina drogek triskantza sozial itzela izaten jarraitzen dute. Aldatzen dira drogak, aldatzen dira formak, baina arazoak, edo azpi-urek, hor jarraitzen dute. Drogak presente daude gaur egun, ondo pasatzeko dira, baina arazo sozial, familiar eta medikoa ziren, eta gaur egun ere badira.

I.E.: Azken finean, istorioa gaur egunean dago kokatua, eta hasierako gertakizuna eragiten duena gaur egungo gazte batzuei gertatzen zaie. Gazte droga saltzailearen bilaketan familia osoa inplikatzeko da, poliziak baino lehenago aurkitu gura dute eta. Hor hiru belaunaldi daude. Iraganera ere jauzi egiten da, baina trama nagusia gaur egungoa da.

“

Egoerak taula gainean probatzen dira, eta hortik trama harilkatzen da”

■

Sorkuntza inprobisazioetan oinarritu duzue. Gustuko metodoa duzue?

I.E.: Teknikoki sinplea da. Hasieratik egonaldi batzuk finkatzen dira. Hasierako prozesuan, sortzaile guztiok batzen gara, aktoreak, zuzendaria, idazleak... eta gaiari buruzko ekarpenak egin eta konpartitzen dira. Gero, egoerak taula gainean probatzen dira, eta hortik trama harilkatzen da. Joan-etorriko sortze prozesua da, betiere. Egonaldietan, proposamen berriak egiten dira, eta forma ematen zaio guztiari. Lan egiteko metodoak parte ederrak ditu, eta ikasbide asko. Hori da interesantea, talde sorkuntza horretan jasotzen duzun guztia, eta negoziatu behar den guztia ere interesgarria da. Prozesu potentea da.

U.I.: Metodo ausarta da, eta asko oinarritzen da elkarren arteko konfiantzan. Hirugarren aldia dugu horrela lan egiten, eta elkar ulertzen dugula uste dut.

Erronka bat izango zen oholtzan uneoro zazpi aktore dituen obra idaztea.

I.E.: Interesgarria da. Denon artean egiten dugu berba gaiari buruz, eta horrek emaitza hobea dakar, batzuetan, tarteka, "korapilatzea" errazagoa izan daitekeen arren. Horrela sortzea ederra dela esango nuke, baina gogoia ere behar da: denbora hartzen du, eta energia asko inbertitu behar da. Aktoreei ere asko eskatzen die, inbertiba aldetik, fisikoki eta ordu aldetik.

ANTZERKIGINTZA • A.M.

'Zaldi Urdina' Artedramak, Axutek eta Dejavuk elkarlanean egindako laugarren obra da. Hogeita hamar emanaldi baino gehiago eskaini dituzte eta pozik daude antzezlanak edukitako harreragaz.

Zelako harrera edukitzen dabil 'Zaldi Urdina'?

Harrirtuta gaude orain arte edukitako harreragaz. Antzoki ia gehienak bete egin ditugu eta hori ez da ohikoa antzerkian. Donostian bost egunetan taularatu genuen, eta bostetan bete genuen aretoa. Sorpresatxoak izan da, zentzu onean.

Publikoan hainbat belaunaldi batu duzue. Izan daiteke hori gakoetariko bat?

Ez dakit zein den formula; bage-neki, beti berdina egingo genuke. Argi dago drogen gaia hor dagoela, baina tabua dela esan daiteke. Drogei buruz ez da berba askorik egi-

“

Gai sozialak ukitzen ditugu, eta horrek ere jendearengan eragina duela uste dugu”

—

ten, eta are gutxiago 80ko hamarkadan heroinak egin zuen sarraskiaz. Ordukoek bizi izan zutelako, eta gazteek, duten jakin-min hori dutelako. Horretxek erakarriko du jendea, beharbada.

Laugarren lana duzue elkarregaz Axutek, Dejavuk eta Artedramak. Publikoa fidelizatzea lortu duzue.

2010ean hasi ginen elkarlanekin, Erratsakegaz; Hamlet eta Francoren bilobari gutuna etorri ziren gero. Esango nuke publiko bat sortu dugula, guk egiten duguna ikusteko gogoz dagoena. Gai sozialak ukitzen ditugu, eta horrek ere jendearengan eragina duela uste dugu. Ekoizpen eta komunikazio lanetan ere lan handia egiten dugu, eta horren guztiaren baturak dakar antzokiak betetzea eta obrek harrera ona edukitzea.

Simon udaltzainaren papera egiten duzu zuk.

“Drogei buruz ez da berba askorik egiten; gutxiago heroinak eragindako sarraskiaz”

Ander Lipus aktorea Simon udaltzainaren azalean sartu da 'Zaldi Urdina' antzezlanean



Ander Lipus
Aktorea
Markina-Xemein
1971

Oso pertsonaia bortitza da. Simonek benetako istorio bi nahasten ditu. Berez, apurtuta dagoen pertsonaia bat da. Kulpa-sentimendu itzelagaz bizi da, semea heroinaren erruz galdu zuelako. Berari gertatutakoa berriro ere gertatu daitekeela ikusten du, eta egundoko astakeria egiten du hori saihesteko. 80ko hamarkadan gertatutakoa da, baina gaur egungo denboretan kontatzen du. Kontraesan ikaragarrian bizi da. Alde batetik, drogen aurka borrokatzen da, baina, bestetik, bera alkoholikoa da. Eta horrek hausnarketa argi batera garamatza: azken finean, zein litzateke droga

legalen eta ilegalen arteko aldea? Zeren, heroina droga bat da, ilegala, baina alkoholak ere hainbat familia edo bizitza hondatu ditu, legala

“

Donostian bost egunetan taularatu genuen, eta bostetan bete genuen aretoa”

—

izan arren. Pertsonaia gogorra da, baina jendea berruraino heltzen zaio, eta bere zati erreala du. Gure herrian gertatutakoak dira eta guk

ere galdera horiek planteatzen ditugu: zergatik da hain erraza Euskal Herrian droga lortzea?

Ikusleak gogoeta egitea gura duzue. 80ko hamarkadan arazo handiak egon ziren drogagaz eta jonkiekin, herri askotan. Esaten da heroinak sarraski itzela eragin zuela Durangon, bombardaketak baino hildako gehiago eragin zituela. ETA bera oso sartuta egon zen drogaren aurka, eta GAL drogatik ateratako diruagaz finantzatzen zela esaten da. Hamar gertaera oso ilun daude hor, gure herriaren parte direnak. Guk hori irakurri eta aztertu ondoren, fikzio-natu eta thriller bat egin dugu.

Gai librea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa



Postureoa

Postureoaren garaian bizi gara. Sare sozialak bihurtu dira pertsonen arteko harreman ohikoena. Zer egiten dugun erakutsi behar dugu momentu oro. Jateko ordua bada ere, hau estetikoki egin behar dugu, dena bere tokian jarri, janari osasuntsua bakarrik erakutsi eta, gainera, filtro batekin koloreak eraldatu. Oporretan bagoaz, gure oinei argazki bat aterako diegu harean sartuta, bestela hondartzan ez garela egon pentsatuko dute. Hego Amerikara, Afrikara edo Asiara bagoaz, bertako umeekin argazki bat aterako dugu, nahiz eta etxera bueltatzean horrelakorik egitea bururatu ere ez egin. Sare sozialak faltsutasunaren ispilu bihurtu ditugu. Hori al zen beraien zeregina?

Beldurra ematen digu gure bizitza erreala erakusteko.

Antzeko zerbait egiten dugu, baita ere, urtea amaitzen denean. Urtean zehar lortutako emaitza onak azaltzen ditugu, pasatu dena ona izan dela argi utziz. Urte oso baten gauza onak bakarrik gertatu direla nork sinetsi dezake, ordea? Museotik ere gauza bera egin dugu, 2019ko datuak eman ditugu eta positiboak izan direla harrotasunez esan dugu, baina beste irakurketa bat ere egin dezakegu, gure ahultasunak zeintzuk diren esan dezakegu: 13tik 25 urtera bitarteko gazteek ez dute museoan interesik, urtean zehar askotan kontra-programatu egin gara beste elkarte edo erakundeekin, oraindik ere ezagutzen ez gaituen pertsona asko dago, komunikazio falta dugu, etab. Agian, gauza onei baino, egiten ditugun akatsei erreparatu bagenie, gehiago ikasiko genuke. Postureoak ez dugu onik egiten.

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etortri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

--	--	--	--	--

“Sarritan harrituta geratzen dira emakumezko xake monitore bat ikustean”

Desagertzeko zorian zegoela ikusita, Larrasoloeta xake klubera bueltatu eta presidente kargua hartu du Maitane Varasek

XAKEA • JOSEBA DERTEANO

Emakumea eta gazte-gaztea. Maitane Varasek xake klub bateko presidenteen ohiko profila apurtu du, Larrasoloeta taldeko buru ipinita. Behinena harrobia berreskuratzea dela dio, eta, horretarako, xake eskola sortu gura du.

Oso gazterik hartu duzu presidente kargua. Zelan gertatu da?

Larrasoloeta hondoratuta zegoen, desagertzeko zorioan, eta, biziberritzeko, odol gaztea gura zuten. Gaztea izanagatik, 12 urte daramatzat xakean jokatzeko, eta badut esperientzia. Iaz Abadiño xake taldean nengoen, baina pena ematen zidan Larrasoloetaren egoerak, eta itzultzea erabaki nuen.

Hain estu zegoen Larrasoloeta?

Bai. Jende gutxi zegoen eta ez zen gazte berririk batzen. Esango nuke Durangoko jende askok ez dakielako existitzen garela ere.

Zer egin daiteke egoerari buelta emateko?

Xake eskola bat sortu gura dugu. Ni eskolatik kanpoko ekintzeta-

ko monitorea naiz, hainbat urte daramatzat horretan eta badut hartu-eman gazteekin eta euren gurasoekin. Larrasoloetan harrobi bat sortzea da asmoa, lehenago egiten zen moduan. Ni ere harrobi horretatik irten nintzen.

Ez da erraza gazteak erakartzea. Durangoko ikastetxeak kirol klub askoren harrobi dira.

Futbolak, saskibaloiak eta antzeko kirolek askoz ere hedadura handiagoa dute, jakina. Gatxa da muturra sartzea, baina badut abantaila bat. Gaztea naizenez, niretzat errazagoa da umeengana heltzea, eurekin konfiantza sortzea.

Zortzi hilabete daramatzazu presidente. Klubak hobera egin du?

Lehen zegoen baino hobeto dago, gutxienez. 2018an Durangoko jailetan ez zen antolatuta ohiko partida azkarren txapelketa, eta iaz berreskuratu egin genuen. Horrelako txapelketak antolatzea funtsezkoa da kluba ezagutara emateko, xakea kalera ateratzeko eta beste klubekin hartu-eman izateko. Beste talde batzuk gonbidatzen badituzu,



Maitane Varas Lopez de Etxezarreta
Larrasoloeta xake taldeko presidentea
Durango | 1997

eurek euren txapelketetara gonbidatuko zaituzte. Bestela, apurka, isolatuta geratzen zara.

Zure kasuan, gaztea izatea ez ezik, emakumea izatea ere bereizgarria da. Xakean ez da ohikoa.

Zornotzan izan ezik, Bizkaiko gainerako klubetan gizonezko presidentek daude, nik dakidala. Xakean, emakumeen egoera kasu bat da. Beti galdetzen digute: "Zergatik ez zaizue xakea gustatzen?". Baina ez da lanik egiten neskak erakartzeko.

Xakearen historiako izen handiak erakutsitako jarrerak ere ez zuen lagunduko. Bobby Fischer-ek esana da: "Emakume guztiak ahulak dira. Ez lukete xakean jokatu beharko".

Bizi balitz, Judit Polgar hungariarra aurkeztuko nioke. Urte askoan munduko onenen artean ibili zen. Begira, futboleko edo antzerako kirolekin genetikak eragiten du, baina xakean jokalaririk bakoitzaren adimenean dago kontua. Berdinberdin egin dezakete gizon batek edo emakume batek. Ez da genero kontua, pertsona kontua baino, eta bakoitzak bere dohainak garatzeko duen gaitasuna.

Estereotipok jarraitzen dute?

Bai. Nik entzun izan dut txapelketetan: "Ba, neska baten kontra jokatu behar dut. Erraz irabaziko diot". Umea nintzenean, emakumea nintzelako edo ez dakit zergatik, beste baina azalpen gutxiago ematen

zizkidaten. Hau da, denbora gutxiago inbertitzen zuten nigan, nahiz eta besteen maila berdina izan, ez gutxiago. Komentatu dut xakeko monitorea naizela, eta sarritan harrituta geratzen dira lehenengoz joan eta emakumea naizela ikusten dutenean. Bestalde, klubek eta federazioak euren konfiantzazko lagun taldeak osatuta dituzte eta gatxa da hor muturra sartzea. Nire ustez, xakearen munduan emakumeak ez dizkiote gauzak erraz ipintzen.

Zerbait gehitu gura duzu?

Gazteren batek izena eman gura badu, martitzen eta barikuetan Landako Kiroldegiko azpiko lokaletan egoten gara, 19:00etatik 21:00etara.

Ibaizabal eskubaloia taldeko gazteek Bizkaiko Lauko finala jokatuko dute asteburuan, eta sorpresa ematen ahaleginduko dira

Ligan partidu guztiak irabazi dituen Barakaldoko Zuazo taldearen kontra jokatuko dute finalerdia, zapatuan



Ibaizabal klubeko gazteen taldea, iazko abenduan egindako aurkezpenean.

ESKUBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Ibaizabal eskubaloia taldeko gazteak goi mailan aritu dira ligan, eta Bizkaiko Lauko Finalera sailkatzea lortu dute. Bizkaiko lau talderik onenak Bakioko kiroldegian lehiatuko dira asteburu honetan, Euskadi Mailara zein talde igoko den erabakitzeko.

Durangerrez gainera, Barakaldoko Zuazo, Bilboko San Adrian eta Basauriko Omega taldeak batuko ditu azken faseak. Ibaizabalek Zuazo taldearen kontra jokatuko du finalerdia, zapatuan, 10:30ean. Barakaldoko kluba Lauko Finala irabazteko faborito argia da. Liga erregularrean, jokatutako 14 partiduak irabazi ditu, 609 gol sartuta: 43 gol partiduko, batez beste. Datu horiek argi erakusten dute Barakaldoko

jokalarien maila. Beraz, durangarrak aurkaririk zailenaren kontra bilatuko dute finalerako txartela. "Erronka zaila da. Badakigu Zuazo Bizkaiko talderik gogorrenetarikoa dela. Hala ere, ilusio handiz joango gara Bakiara", adierazi du Martin Barañano Ibaizabal gazteen taldeko entrenatzaileak. Finalerdietako talde bi onenek domekan jokatuko dute finala.

Ligan, indartsu

Ibaizabalek merezimendu osoz eskuratu du Lauko Finalerako sailkapena, ligan jokatutako 14 partiduetatik 10 irabazita. Golik gehien sartu (354) eta gutxien jaso duen (227) bigarren taldea izan da, Basauriko Omegaren atzetik.

Kadeteak ere goian

Ibaizabaleko kadeteak ere oso maila ona erakutsi dute aurtengo ligan. 12 taldeko ligan laugarren geratu dira, jokatutako 11 partiduetatik 7 irabazita. Guztira, 247 gol sartu dituzte: 22 gol partiduko, batez beste.

Erakustaldia emanda, Irene Loizate durangarrak Bizkaiko txapela berritu zuen Berrizko krosean

Gurutze Fradesek podiuma zapaldu zuen emakumeetan, eta Dabid Garciak eta Oier Ariznabarretak gizonetan



Andrea Mediero, Irene Loizate eta Gurutze Frades.



Dabid Garcia, Imanol Goñi eta Oier Ariznabarreta.

KROSA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen domekan Bizkaiko kros txapelketa lehiatu zuten Berrizen, eta emankorra izan zen Durangaldeko korrikalariarentzat, Bizkaiko hainbat txapeldun utzi zituen eta.

Emakumeetan, Irene Loizate durangarrak erakustaldia eman zuen nagusietan, eta bigarren urtez jarraian jantzi zuen txapela. Hasi-eratik ihes egin, eta Bilbao Atletismo taldeko korrikalariak bakarrik egin zuen lasterketa osoa, bere maila age-

rian utzita. Minutu batetik gorako aldea atera zion Andrea Mediero bigarren sailkatuari. Gurutze Frades iurretarrak osatu zuen podiuma.

Gizonetan, Durangaldea Running taldeko Dabid Garcia durangarra, iazko txapelduna, bigarren tokian sailkatu zen, eta podiumean Oier Ariznabarreta (DKT) izan zuen alboan, hirugarren tokian. Imanol Goñik jantzi zuen txapela. 23 urtez azpikoan, Araitz Villa abadiñarra izan zen onena nesketan.

Gazte mailetan

Durangaldeko korrikalari gazteek harrobia indartsu datorrela erakutsi zuten. Gontzal Murgoitio elorriarra (DKT) Bizkaiko txapeldun geratu zen 20 urtez azpiko mailan, eta Ion Cabadak (Sekulebedarra)

Araitz Villa, Gontzal Murgoitio, Izaro Aranburu eta Julene Arriaga ere txapeldun geratu ziren

zilarrezko domina eskuratu zuen 18 urtez azpikoan.

Emakumeetan, Izaro Aranburu (DKT) Bizkaiko txapeldun izan zen 18 urtez azpikoan, eta Garazi Zuzua (Bidezabal) azpitxapeldun 20 urtez azpikoan.

Azkenik, 16 urtez azpikoan, Julene Arriaga durangarrak irabazi zuen Bizkaiko txapelketa.

Eskualdeko klubek taldekako hainbat sailkapen irabazi zituzten, batez ere, DKT klubak.

Asteko kirolaria

“Polita da markak apurtzea; baita jendeari gure lana zelakoa den ikustaraztea ere”

Orkatx Beitiak 5 segundo-milarenetan hobetu du 2012tik hona ezarrita egon den marka

Durangon bizi den Orkatx Beiti korrikalariak (Ondarroa, 1979) hainbat errekor hautsi ditu bere kirol ibilbidean, eta gaur egun ere berdin jarraitzen du. Asteburuan Anoetan jokaturako txapelketan, marka berria ipini zuen 60 metroko lasterketan M40 kategorian: 7,06 segundokoa.

60 metroko lasterketan 2012tik hona ezarrita egon den marka hautsi duzu asteburuan. Pozik zaude lortutakoagaz?

Egia da oraindino 24 urte ditudala pentsatzen dudala, eta neure buruari marka hobek eskatzen dizkiodala, baina, bai, pozik nago. Polita da markak

apurtzea; baita jendeari gure lana zelakoa den ikustaraztea ere. **5 milarenetan hobetu duzu marka. Itxarondako emaitza izan da?**

Anoetakoa denboraldi honetako nire hirugarren lasterketa zen eta aurreko lasterketa biak ikusita, arduratuta nengoen. Pentsatzen hasita nengoen beste marka batzuetara ohitzen hasi beharko nuela, eta hori izango zela nire egungo errealitatea. Baina nahiko lasterketa polita izan zen eta asteburu honetan Durango Kirol Taldeagaz jokaturako dugun Euskadiko taldekako txapelketan 7 segundoetatik jaisten ahaleginduko naiz.

Asteburuko emaitzak indarra eman dizu datozen lasterketetarako?

Horrela da, bai. Ikusi dut entrenamenduetan beste pare bat gauza ikututa oraindino hobetu dezakegula, eta nire asmoa hori hobetzen joatea izango da. Hala ere, badakit marka hobetu dezakedala, baina lesionatu ere egin naiteke. Urteekin ikusi dut, gaztetan ez bezala, adinagaz gorputzak, aurretik ezer esan barik, lesionatzeko joera duela. Beraz, lesionatzen ez banaiz, marka hori hobetu dezakedala uste dut.

Zeintzuk dira Orkatx Beitiaren hurrengo helburuak?

Neguko denboraldiari dagokionez, ezarritako marka hobetzea eta otsail erdialdean jokaturako den Euskadiko txapelketa ab-



ORKATX BEITIA GANDIAGA

Ondarroa, Korrikalaria

solutuan dominen borrokan ibiltzea dira nire helburuak. Momentu honetan ondo sentitzen naiz eta Euskadiko txapelketan gazteei gerra apur bat eman eta goian egotea gustatuko litzaidake. Baina, aurretik, Euskadiko taldekako txapelketa daukagu asteburuan Durango Kirol Taldeagaz, eta han lan txukuna egitea gustatuko litzaidake. Taldea podiumean egoteko moduan ikusten dut, baita historia egiteko moduan ere.

Jokaldia

Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza



Euskadi Fundazioa

Bai, aste honetan albiste izan dugu Euskadi Fundazioa txirrindularitza talderaen aurkezpena. Euskaltel Euskadi taldea berreskuratzeko dagoen gogoarekin, Fundazioaren proiektura bideratu dira indar guztiak. Jaurlaritza, hemengo eta hango babesleak, Mikel Landa bera... baina bizikleta eta txirrindularitza maite eta bizi dugun guztiok hankak lurrean ditugu, badaezpada.

Gure “laranja mekaniko” lortzeko bidea da Fundazioak sustatzen duen proiektua, baina emaitzak bat-batean etortzea ez da hain erraza izango. Hori buruan izan behar dugu. Apurka-apurka, Fundazioak indarra hartu behar du, bai kirolari gaztetxoak hezten doazen heinean, bai World Tourreko “erraldioen” artean lehiatzeko. Ilusio eta gogo aldetik ez die inork irabaziko, baina hori baino gehiago beharko dute indartsuenen artean nabarmentzeko.

Seguru nago, hemendik bost-sei urtera edukiko dugula denok amesten dugun “Euskaltel” berria, baina, oraingoz, fundazioa formakuntza bat da, neskena zein mutilena, eta lan gogorra egin beharko da, behetik hasi eta mendiaren tontorreara igotzeko.

Euskal zalegoak, betiko moduan, etxekoari indarra emateko eta hasiko duten etapa berriari begira ziklistei hauspoa emateko, San Mameseko gela lepo bete zuen aste honetan egindako aurkezpenean. Argi dago eurekin daudela (gaudela) eta ez zaiela animorik faltako. Eta horrela behar du. Baina uneoro gogoan izan behar dugu non gauden eta nora heldzea dugun helburu. Egin beharreko bide horri begira, gaztetxoek formakuntzak berebiziko garrantzia du eta taldeko beste edozein adarri bezain besteko garrantzia eman behar diote. Zeren eta harrobirik ez badaukagu, zelan helduko da “marea laranja” Frantziako Tourreko, Italiako Giroko zein Espainiako Vueltako bide bazterrak betetzera?

Beraz, eduki ditzagun hankak lurrean. Mortirolo gainean dago helmuga, baina horra heldu aurretik, hainbeste mendi txikiago batzuk igo behar ditugu! Pausoz pauso ibilita helduko gara ondoen mendi tontorrera. Presarik gabe, baina konstanteak izanda



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrioren. 50 m². Igoailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan Abadiñoan. Tel.: 699 17 40 23

Etxe bila Durangon edo lurretan. Lau laguneko familia bat etxe bila dabil Durangon edo lurretan. Tel.: 645 73 82 31

Lana Formakuntza LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsua eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest.

Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. 3 urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat.

Titulua ere badaukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel.: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 612 42 06 78

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel.: 688 64 59 83

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Elorrioko baserri baterako langile bila gabilta. Elorrioren 40 urtetik gorako emakume baten bila

gabilta, domeketan baserri batean lan egiteko. 9:00etatik 20:00etara. Pili Tel.: 653 72 30 95

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 11

Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Umeak egun solteak (gaixorik daudenean) eta oporretan zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Esperientzia edukitzea eskatzen da (erreferentziak eukita hobeto). Nagore. Tel.: 629 75 76 32

ANBOTOK banatzailea behar du Durangaldean

ANBOTOK banatzailea behar du Durangaldean barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu Tel.: 665 71 09 31

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan,

asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602 89 50 18 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile (interna) gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaindu, etxeko garbiketa lanak, arropa lisaketa, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 643 72 71 98

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurilaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Pertsona heldua zaintzeko pertsona behar da. Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 744 988

IRAKASKUNTZA

Irakasle beharra. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa ondo jakitea ere baloratuko da. Tel.: 686 81 02 03

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Frantsesa praktikatzeko berbalagun bila nabil. Frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetu asmoz. Tel.: 617 37 89 33

Klase partikularrak (LH/DBH).

Lehen hezkuntzako edo DBHko 1go edo 2. mailako ikasleei edozein irakasgaitako lanak egiten laguntzeko edo azterketak prestatzeko prest nagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2. maila egiten ari naiz. Informazio gehiago eskuratzeko, Tel.: 651 30 62 34

Matematikako partikularrak emateko pertsona baten bila gabilta. 6. mailako (LH) ume bati matematikako partikularrak eguerditan emateko pertsona baten bila gabilta. Tel.: 649 56 34 92

Denetarik

SALDU/ EROSI

Simaurra. Barutzerako simaurra erremolkean eramaten da. Tel.: 699 06 07 90

ERRENTAN

Garajea alokagai San Inazio auzoan. Garaje lursaila hilean 50 euroren truke alokatzen da Durangoko San Inazio auzoan. Harremanetarako Tel.: 603 31 12 72

DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,
ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON
Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

Botikak

BARIKUA, 24 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 25 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 26 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 27 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 28 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 29
09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 30 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak



GOZATU GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, gure printzesa! Pozik eta alai jarraitzea espero dogu. Danelen, aitaren eta amaren partez besarkada handi bat.



Urtarrilaren 8an **Paul** Ugaldea Iñurriarrok 11 urte egin zituen. Familia osoaren partez zorionak eta musu handi bat. Egun ederra pasa!



Zorionak, **Oihan!** Oso ondo pasa eguna, eta orain bezain zoriontsu izan zaitzela! Muxuak etxekoan partez!



Zapatuan **Uxuek** 5 urte egingo ditu. Zorionak, laztana! Jaso muxu handi bat etxekoan partez!



Begok eta **Purik** Bakixako briska txapelketa irabazi dute. Zorionak, bikote!



Eguaztenean urteak egin zenuen. Zorionak, ama, Amaian partez!



Zorionak, **Markel** eta **Jone!** 7 urte egingo dozuez iada. Mosu handi bana.



Zorionak, **Maidier**, domekan 13 urte egingo dituzu. Musu bat Helene, aita eta amaren partez.



Gaur **Martin Onandiak** 9 urte egin ditu. Zorionik beroenak zure etxekoan partez! Ondo ospatu!

Eguraldia

ZAPATUA 13° / 6° ☁

ASTELEHENA 13° / 5° ☀

EGUAZTENA 12° / 5° ☀

DOMEKA 15° / 5° ☀

MARTITZENA 12° / 9° ☁

EGUENA 17° / 11° ☁



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

"Tatuajeak egiten urtebete ez neramala, bere kotxea tatuatzea eskatu zidan bezero batek"

Anartz Aranguena orain 12 urte hasi zen tatuajeak egiten. Marrazkigintza eta diseinu grafikoa ikasi ondoren murgildu zen tatuajeen munduan, eta gorputzean 15 bat tatuaje dituen arren, bat bere ere ez da berak egindakoa

Anartz Aranguena Garcia
(Durango, 1979)
• Tatuatzailea

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Gaur egun gatxa da tatuajerik ez duen norbait topatzea. Anartz Aranguenaren berbetan, azken hamar urteetan normalizatu egin da tatuajeak egitea. Durangarrak argi du ez lukeela egingo bezeroari kalte egingo liokeen tatuajerik, eta, egunen batean, norbaiti gorputz osoa tatuatzea gura luke, hasi eta amaitu. Saman tatuatzea da zailena bere ustez, bezeroarentzat batez ere.

Berba bitan

Tatuaje bat egiteko gorputz atal bat
Hasteko, besoa

Inoiz ez zenuke egingo...
Guztiz konbentzitzen ez nauen tatuaje bat

Inoiz damutu zara tatuaje bat egiteaz?
Oraingoz ez, baina gerta daiteke!

Abesti bat
Su ta Gar taldearen 'Jaiotze Basatia' diskoa

Bidaia bat
Japoniara

Zaletasun bat
Tatuajeak egitetik aparte, bi-daiatzea

Paperean marraztea eta azala tatuatzea desberdinak dira...

Oso desberdinak, batez ere ideia edo konposaketa praktikan ipintzeko orduan. Tresnak ez dira berdinak. Gainera, papera ez da mugitzen, ez da kexu, ez darama txarto, ez du hotzik edo berorik... Bestalde, tatuajea hiru dimentsiotan egiten da normalean, eta gorputz atalaren, azal motaren edo kolorearen arabera asko aldatzen da.

Gogoratzen duzu egin zenuen lehenengo tatuajea?

Bai! 'Om' sinboloa tatuatu nion lagun bati. Oso urduri nengoen, baina oso polita izan zen. Abenduaren 24a zen.

Tatuaje guztiek dute istorio bat atzetik?

Normalean, bai. Batzuek estetika hutsagatik egiten dituzte; guztiz baliozkoa da. Nire kasuan, dudatan tatuaje bakoitzak bere arrazoa du: tontokeria bat edo bizitzako momentu garrantzitsu bat. Adibidez, 10 urte bete nituenean tatuatzen, lehenengo tatuajea egin nion lagunak eta biok tatuaje berdina egin genuen.

Tatuatu duzu inoiz zeure gorputza?

Ez. Tatuajearen politena norbaitegaz partekatzea da. Zer egingo den planteatzea, irudia erabakitzea... hori ere bada tatuaje baten parte.

Zelan definituko zenuke zure estiloa?

Hiruzpalau urtetik hona *dotwork* edo puntillismoa [puntutxoekin tatuatzen da] lantzen hasi naiz. Forma geometrikoekin eta lerro solteekin jolasten naiz. Irregularitasuna bitartean dut, beti ere, emaitza bisualki ona delarik.

Zer eskatzen du jendeak gehien?

Denerik dago, eta egon behar da. Datak, izenak... eguneroko kontua dira. Baina, gaur egun, Durangon tatuajearen kultura handia dago; jendeak badaki zer gura duen, zein estilo, eta hori eskatzen du. Dimanika hori sortzen ari da eta oso ondo dago. Tatuaje asko egin dituenak badu kriterio bat, eta topikoetatik ateratzen da.

Zer izan da eskatu dizuten tatuajerik arraroena?

Tatuajeak egiten urtebete ez neramala, bere kotxea tatuatzea eskatu zidan bezero batek; Ford Scort gorri bat zen, Donostiako matrikulagaz. Maitasun handia diot tatuaje hari.

Baduzu tatuajeren bat go-goan, atzean duen istorioagatik?

Denboran jarraipena duten tatuajeak motibatzen naute gehin.

Hanka edo beso osorik tatuatzeko, urtebete pasatateke.

Bada, harreman berezia sortzen da. Lan bereziak bihurtzen dira.

Tatuaje bat egiteko aholku bat?

Oso garrantzitsua da ideia argi izatea. Eta aholkatzen uztea. Horretarako gaude.



Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Ezekiel

Kuriositatea interes bihurtu zitzaidan, orain interesa obsesio. Istorio ezkutu bat, gure herriaren hainbat ertz batzen dituen hari singlea, nonbaitera dararamala dirudiena, edo horren atzetik nabil ni behintzat, zulo urdin guztiak miatu ezinik.

Begiratu gura diot goizero egunari obsesio honi begiratzeko diodan moduan, argazki hartako mutil brasildarrekin: tren gainera igota, ziztu bizian, goi-tentsioko kableen artetik salto egiteko prest. Arriskuz beteta, bai, bizitzaren zirraraz.

Haritik tiraka lehendik ere hari horretatik tiratu dutenak datoz: Ruperren azukre kokorak, TikTararen doinu karibetuak, Jasanen hots ilunak, Hardezanen belatze beltzak, eta beste euri zital batzuk.

Martxel Mariskalek gogor egin zion tira hariari, eta hamazazpi urteak hamazazpi zuri izan ziren, Leonard Cohenek Hallelujah garajearen abesten zuen artean. Eta arranotu zitzaidan, amoratu. Agian prozesuak gertatu egiten direlako, guk gura ez badugu ere. Tiratu dio hariari Idoia Garzesek orain dela gutxi, eta Jasone Osorok ere gogor kolpe egin du.

Gauza asko ez ditut ulertzen, eta hari honetatik ari naiz tiraka ni ere, zer edo zer aditu guran; mundua ikusteko modu bat edo egoteko modu bat edo zerk eraman duen hari honek hau guztia lotzera. Obsesioa bera ulertu-gura delako, hori delako kulturak sortu behar duena: interesa piztea, ezinegona sortzea, errealitatea aldaraztea. Beste dena entretenimendua da, denbora-pasa.

Beste hari asko daudelako gure ekosistema honetan, tiraka zerbaiten bila aritzeko, eremuko dunen atzetik.

HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Erdu Gurekin! Berrizko euskal eskola publikoa

LEARRETA-MARKINA eskola
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 344 | 014097aa@learretamarkinaberriz.com
www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

IES BERRIZ BHI
Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ
Tel.: 944 287 976 - 015073aa@hezkuntza.net
www.berrizbhi.com

AURREMATRIKULA
Urtarrilaren 27tik
otsailaren 7ra

